

IPUIÑAK
II

NIRE TXINDORTXUA!

**LUKAS BASA-TXAKURRAREN
ZORIGAITZAK**



OTAZUA'tar BENITO

IPUIÑAK

II
ATALA

NIRE TXINDORTXUA!
LUKAS BASA-TXAKURRAREN
ZORIGAITZAK

EGILLEA.– OTAZUA'tar BENITO

MARRAZKIGILLEA.– AÑON'tar ESTIBARIZ

1996

NIRE TXINDORTXUA!

Txindorra!, nok ez dau ezagutzen txindor, txori txiki au? Euskalerriko basetxetan nor da txindortxu bat bere egoitz alboko zugaitz baten txio-txioka entzun ez dauana? Urtero, Udagoiengan ikustaldi, egon-aldi bat egitera gure lurraldetara etorten dan txori txiki bular margo gorriduna, nok ez dau ezagutzen?

Bai, Euskalerriko baserritar mutikotxuak zenbat jolasketa txindortxuaz egin ete dabe! Zenbat bider soso, biragarro arrapatzeko mutikoak egindako txori-arte tranpan, soia lurreratuta ikusirik, mutikoak arreta aundiz bere eskua zoipetik zulo barnera sartu, soso edo birigarro bat arrapatzeko asmuz zuloan barneraturik, ara non, txori orren lekuan, txori txikitxu bat eskuratzen dauan.

Olako gertaeratan, leenengotan mutillaren asa-

rraldia gogorra izaten da, baiña eskuratu dauan txori txikitxua txindorra dala ikusirik, bere asarraldi bereala baztertzen da.

Arraio arraioa! Zu zara?, diñotso mutikoak, ez dozu ikusten ba txori-arte, tranpan zu sartuaz soso, birigarroak uxatu egiten dozuzala? ... Zoaz gurera ta bertan zeuk nai dozun beste janari daukazu.

Txoritxuak, alboko zugaitz adar baten kokatuta, mutilla eskertzen dau.

Txori au, txindortxua gorputzez txiki ta apal iruditu arren, bere tokia zaindu, babestzeko izaki ausarta ta adoretua da. Bera finkatzen dan lurraldea, gunea, bereziki zaindu, jagongo dau. Berak agintzen dauan lurraldean beste txori bat, naizta bera baño aundiago izan, gorputzez bera baño aundiago izan, sartzan ba da, saratatsu ta gogor erazotuz, egazka beingoan bere aurretik eroando dau.



Txindurtxua basetxe aurrean, atari aurrean elikatzen.

Udagoiengan, Negu aurre-aurrean, arto-uzta batten dan sasoian, basetxe alboko zugaitz baten kokaturik, baserritarrak, etxagunak, laba-sua zelan egiten dauan zain, txio-txio epel batzukaz lagundurik, agertzen da.

Gure ipuiñeko txindortxua, Udagoi baten, egoaize indartsuak zugaitz, artolazto ta gaiñerako landarak gogor astintzen ebazan egun baten agerturik, basetxe alboko intxaurra, bere egoitza ille batzutarako izateko asmuz, aukeratu eban.

Bere goiztar leenen-leenen agurtze txiotxirolitua, maitasun osoz on-artua izan zan nekazari sendiarentzat, izan zan. Olan, ementxe berton, unetxu ber-beratan ipuin onen kondairak bere asiera izan eban.

Euskalerriko basetxe aundi bat, zure adimen-begiakaz irakurle, begiratu eizu. Bere atari zabal, edatsuaren eskuma-eskerretara bizi-leku bana, guzti au beko aldean; bizi-leku onein ganean ganbara edatsu, arto, indaba, kinpula, berakatz, basetxeke uzta guztia gordetzeko. Basetxe atse-aldean, bizi-leku ostean eta astiel batek bananduz, bean korta edatsu ta bere ganean laztotegi, Negu luzarorako lazto, galtzu ta bedar-legortua ornitzeko. Basetxea ez da besterik ezezkoa.

Andra-gizon nekazari bi, lau seme-alaba lagun dabezela osotzen daben sendi bat bertan bizi da, euren egoitza da.

Basetxe aurrean ezkerretara, kereix enbor lodi-lodi ta adartsudun bat. Kereix au enbor lodi-lodidun neurritz kanpokoa izanik, etxagunak guztiz maite dau.

Etxagunak bere bir-aititak landaratu ebalu esaten eban. Ipuin onen egillearen ustez, etxagunari ortik etorkion zugaitz areganako maitasuna.

Basetxe eskumara, txindortxuaren egoitza zan intxaurra, etxe atserantz oillotokia ta ta bere alboan arto-igartzeko labea.

Basetxe, solo ta ortu landuak, amabiko zugaitz sagar, okeran, kereix eta iko batzuk, inguratzen dabe.

Emen dogu laukia, antxerkilariak be, txindortxua ta andra-nekazaria tarte izanik, gertu dagoz euren lana betetzeko, saiatu gaitez ba lauki ori margotzen.

Andra-nekazaria egunero goiztar egazti ta untxiei janaria emoten jaitsirik kar-kar abesti saratsuz oiloak euren esker-ona andratxuari agertzen eutsen.

Goizaro andratxuak bere amentalako sakelean txoritxuentzat eguneroko otamena ekarran.

Emen daukazu koipetsu ori! andratxuak esaten eutsan, baiña emen doduzan etsai, egazti, txori, katu ererio oneikaz, kontuz ibilli zaitetz!

Izan be txoritxuak zelako txera, laztankeri, txio-txio eztituakaz andratxua agurtzen eban ba!

Andratxuaren inguruan egazkadaka, txio-txio laztankorrez, txoriak bere esker-ona agertzen eutsan.

Txindortxuak bere zeregiña zintzo betetzen eban. Intxaur adar baten kokatuta, basetxeko biztanle guztien zain, batez be andra-nekazariaren mugimendu guztien zain, egoten zan.

Andratxuak, txoriaren kutun, laztantasunak, oparo ordaintzen eutsazan, bai eguneroko otamen ugariak eta baita be ondo aolkatuz eta bere arerio, etsaietatik jagon, babestuz.

Au olan izanik, ez da arritzekoa txoritxuak basetxean areriok batzuk izatea. Bekaizkeria, irakurle, izaki guztietan da ta egoitz aretako katu, oilo, egaztiakandik, txoria ez zan bat be ondo begiratu.

Egaztiak eta batez be oiloak esaten eben, eta ez egozan guztiz oker, or dozue txori arto ori, ganorabako txio-txio ergel batzuk gure andra-ugazandeari egiten dautsaz, eta bere eguneroko otamena, beraz ugaria, eskuratzen dau, mokoratzen dau. Guk osteria eguneroko arrautz urre-gorri aiñako gorri, eder berebil bat ipinten ez ba dogu, lapikorako bidean izaten gara.

Gure eguneroko otamena be, guri andra-ugazandreak opatzen daskun otamena be, txoriari emoten dautsan aiñako ugari ez da izaten.

Janariaren buruz be, gure janariaren buruz, ez dago zuzentasunik. Emen be alperrak garaille urteten dabe, zuzengabekeria arlo larregietan sortzen

da, zoritxarrez. Urrun, asao joan barik, or dogu gure jaun eta nagusi dan oillar jauna, arro bere gangar eder eta luma margo ezbardindunakaz, politak ori bai, guri guztioi aginduak emoten. Bere indarra dala ta, beste zio barik, bere nagusitasuna agertzen dau, ta guk apalak eta indar-gabeak men egin bear dautsagu.

Oilotokian egaztiak mar-mar, kezkatu ebiltzan.

Arazo au zuzendu naian, euren menpekotasuna zuzendu naian, oilarra oilotokitik aldendu zan une bateaz baliotuz, oiloak batu ziran, batzar bat egin eben.

Oilorik zaarrenak, oitura zan lez, oilotokiko oilorik zaarena, batzarreko ordezkaria izendatua izan zanak, batzarraren zio ta nai, gurariak, azaldu eban.

Sarrera egin ondoren oilanda gazte batek bere txanda eskaturik, berba, itz, egin eban.

Lagunok, iñotsen, oilo-amamak esan dauan lez, azaldu dauan lez, gure inguruan zuzengabekeria ugari agertzen da. Nik arazo onetzaz, gertaera bat soilki agertuko dautsuet. Gure zeregiña arrautz gorri ederrak ipintea dala ba dakigu, gure bear-kuntz au oso-osoan betetzen dogula, uste dot, bestela emen bilduta ez gintzake egongo. Zeregin au betetzen ez dauanentzat, nire izeko Petrari joan dan astean gerta jakon bezela, lapikoa edo kazualatxua izaten da bere azken tokia... Ostera gure inguruan


beste izaki batzuk tautik egin barik euren janaria lortzen dabe. Or dozue, esate baterako, txindor txori txikitxu ori, ezetariko lanik egin gabe, txirolitxio koipezdun batzuk andra-ugazabari, ugazandrearari egiñik, guztiz errez eguneroko otamena, eta zelako otamena!, mokokatzen dau, eskuratzen dau... Zuzena deritxozue...

Onetan etxeko txakurra, Azkar eritxon txakurra, egazti aldra osoa batzarturik zala, jazoera onen zio zein zan jakin naian oilotokira urreraturik, oilanda gaztearen itzaldia geldi-arazten dau, bereala egaztietei garrats esanez:

Ixildu zaitzeze guztiok arren!, txakurrak bere nagusitasuna agerturik oiuka iñotsen.

Oilanda gazte Kizkiren izketa, itzaldia, entzun dot, tamala da baiña niretzat, nire eretxiz ez dago guztiz zuzen. Eztabaida, auzi guztietan kide izaten diranatariko biak euren errazoiak izaten dabez, zio onetan be zuek errazoi pizka bat izatea baleiteke, baiña entzun eizue! Emen ludi onetan bakoitzak bere bearkuntzak dauz, emen berton be zuok eta nik geure egin-bearrak doguz, baita be, zelan ez, geure eskubideak.

Zuek egunero edo egun birik baten, arrautz biritz bil gorri eder bat andra-ugazabari, uzandrearari opatzen bearturik zarie. Nire eginbearra, basetxe ta inguruak zaindu, babestea da. Zer dala ta, uste dozue, zueri ta niri, eguneroko janari ta aterpea



Txindortxua atxilotuta dagon kardantzilloaz alkar-izketan.

gaba nasai, eroso egoteko emoten dauskula ba? Gure andra-gizon ugazabak gugaz egiten dabena, menpekeririk dala ezin leiteke esan. Zuek eta ni azke gara, ez gagoz atxilotuta. Oilotokiko atea egun osoan zabal-zabalik idegita egoten da, beraz zuok nai dozuen bizi-bidean joateko ez dozue eragozpenik. Niri be bardin-bardin jazoten jat. Nire txakurtokiak ni atxilotuta izateko aterik ez eze kate, ez ezelako lokarririk, ez dauka.

Gure bearkuntz, gure egin-bearrak, zeintzuk diran argi geratu dira. Gure eskubideak, ba da bear-

kuntz eskubiderik gabe, ez eskubiderik bearkuntz gabe ez dago ta, otamen ugari, bizi-leku, bizi-toki eroso egoki ta nagusiakandik adeitasun eta izaki bizidun bezela begiratuak izan gaitetzala, premiñaz-koenak dira Batan batek, norbaitek, bere lana, bere azkartasun edo lanerako dauan trebetasuna zuzenez ordaindua ez dala uste ba dau, zuzena da gizabidez, baiña gogor, bere eskubideak eskatzea.

Argi agertzen da ba, zuok eta nik azkatasun-bidea geure begien aurrean dogu, azkatasuna doe benetan lilluragarria da. Izaki batek izan leiken doa zoragarriena, baiña zoritxarrez, zuen biroak eta nire urdailla ez dauz asetzen. Egunero, ta bein baño geiagotan ba da oba, jan bear da, orixe da kezka. Sarritan geure azkatasunaren gainetik, geure bizi-bide ase, oparotsua ezarten dogu.

Baiña txindortxua baztertu, beragaz aitzurik baztertu dot. Txori txiki apal onek be bere egin-bearrak dauz. Orrelako txori epel, makalei esker, niretzat eta zuek egaztientzat kaltegarriak diran moxorro, ar, koko, euli ta amarauak euren janaria izanik, ilten dabez. Orrez ganera, euren abesti, euren txio-txio eztsuakaz inguruak, lurraldeak, alaitzen dauskuez. Txindortxu, txori epel, babesgabedun baten aurka egoteko, izateko, ezjakin utsak zarie, baiña zuek txori orregan dozuen amurrua zuen jakingabetasunaren ondorio izanik, nire parkamena dozue, zio orrek zigor berezi batetik gaizkatzen zaitue.

Intxaurraren goienetariko adar batetik gertaera au txindortxuak ikusirik, bertan iñoena entzunda, txakur eta egazti-aldra ganetik bere ego txikitxua-kaz aize-iger, ego-aizea astindurik, egazkada, egaldaketa baten, txio-txio maitegorrez, egaztiei bere parkamena ta txakurrari bere esker-ona, adierazoten eutsen.

Nik neure zeregiñak, eginbearrak, alik ondoan, zintzoen egiten saiatzen naz, txindortxuak oilo ta txakurrari iñotsen. Ze gertaera zuentzat kaltegarria dana egin dot, ba? Andra-ugazabagandik eguneroko ogia artzen ba dot, kutuntasunez zaintzen ba nau, begikotasunez agurtzen ba nau, gertaera oneik zuentzat kaltegarriak dira? Andra-ugazabak, niri emoteko zuen otamennetik zatitxu bat be ez dau baztertzen. Zuen otamena oparoa dala, zeuok bein eta barriro baieztatu dozue. Andratxuak bere egikisunakaz maite zaituela, argi agertzen dau.

Lagunok, bekaitzkeria grña txarra da, zuen biotzetatik baztertu eizue, alai ta nasaiago biziko zarie. Esker-onekoak izan zaitez! Iñoiz Filomenaren oiloari gertatukoa entzungo zenduen, ez?

Ez, ez, oiuka erantzun eben, edestu eiskuzu! Egazti aldra osoak oiuka gertakisun ori edestu egiala eskatu eutsoen.

Bai, oraintxe emen bertan Filomenaren oiloari zer gerta jakon jakingo dozue.

Filomena, nekazaria bera, basetxe txikitxu baten

bizi zan. Lurralde urridun basetxe aretan, barazki uzta urriago lortzen eban basetxean, untxi bikote bi edo iru, ta oilo eder-eder bat lagun eta laguntzaille ebazala bizi zan. Eskerrak ain maitekiro zaindu, jagon, eta elikatzen eban oilotxuari, Filomena andra-alarguna bizi zan. Oilotxuak egunero, egun baten be utsik egin barik, ipinten eutsan arrautz gorri-gorriari esker, Filomenak bere urdailla, betetu ez baiña etsipetzen eban.

Egunero goiztar oilotxua lo egiten eban otatik jaitsirik, bere andra-ugazabak eroso antolatuta eban abian, arrautzatxua ipiñi, opa ondoren, kar-kar abeslari oilo-abitik urtenda, Filomena bereala ariñeketan oilo-abirantz urreraturik arrautzatxua bere eskuetan artu, zerurantz jaso ta bertako deun eta done guztiak eskertuz, eta baita be, zelan ez, oilotxua, bein eta barriro arrautzatxua mozukatzen eban. Bedinkatu izan bedi Jauna nire oilotxua!

Arrautzatxu a barik, eguneroko arrautzatxua a barik, Filomenan bizitza zelan izango zan ba? Bere ortu txikitxuan lortzen ebazan porru, piper, tomate barazkiakaz, ez dakit Filomena bizirik zelan urten-go eban. Barazkiak aldizkako jakiak dira, ostera jan egunero egin bear da. Oilotxuak, Filomena barautik azke izateko, egunero arrautz bat opatzen eutsan.

Zuzen be Filomenaren oiloak asmakizun ber-ber au izan eban. Bere baitan, bere bakar-izketan oilotxuak olan iñoan.

Nire andra-ugazaba, bere etxe aurreko ortuan barazki urri batzuk uzta bezela lortuz, lan oso gitxi eginez, nik opatzen dautsadan arrautzatxuari esker, nasai bizi da. Ordainez niri emoten daustan otamena, ez da bat be zuzena. Bere bizi-bidean nire laguntza premiñazkoa danez, nire otamen, eguneroko janaria aundiagotzeko, zerbait asmau bear dot.

Filomenaren oilotxuaren buru-auste amaibakoan, asmakisun sekulakoa izan eban.

Zuzen be, orixe, ber-ber ori egingo dot, oilotxuak bere baitan iñoan. Or batera ta bestera oiuka ibilli barik, gaurtik aurrera eta arik eta nire uzandreak otamena aundituagoarte, egun birik baten arrautz eder bat opako dautsat. Gertaera onek ondorio onik ez ba dau, nik nai dodana lortzen ez ba dot, gero iru egunetik iru egunera nire uzandreak nire oparia izango dau.

Ze burutasun sekulakoa!, zelan leenago burutasun zoragarri au ez dot izan! pozez bere bularra puzturik, oilotxuak iñoan.

Oiloak asmau ta egin. Biramonean andratxuak oilotegian kar-kar abestirik ez eban entzun, eta oilo-abira ariñeketan eguneroko arrautzatxua billa joan zanean, sekulako arritze mingarria izan eban.

Nire oilotxuari zer jazo jako gaur ba?, bere barnean andratxuak iñoan, gaixorik ete da ba?, beintzat antzik ez dauka, gangarra gorri-gorri ta bere itxura osasuntsuak, gaixorik ez dau adierazoten. Ez,

gaur bear ba da arrautz ipintea aitzu egingo jakon. Gaurko aazte onegaitik ez dautsat ezer esango, biar, ziur, arrautz bi opako daustaz.

Biramonean oiloak arrautz bakarra ipiñi eban. Urrengo eguna be arrautz bakoa izan zan, eta egaztiak bere burutasun, bere erabagia oso-osoan betetzen eban.

Aste bete olan igaro zan. Egun birik baten oilotxuak arrautz bat ipinten, baiña andra-nekasaria be, arazo au ausnartu gabe ez eban izan.

Arraio arraio! Demontrez!, bere barnean iñoan, nire oilotxua alpertu egin jat. Aste bete luze da, ta iru arrautz baño ez daustaz opa. Otamena, bere eguneroko janaria leengo bardin-bardiña da, ostera arrautz-ipintea gitxiagotu daust eta ori ez da zuzena, ez da errazoizkoa. Neuk be bere otamena, bere eguneroko jakia gitxiagotu bearko dautsat. Gaurtik aurrera arrautzatxua opatzen daustan egunean, arrautzatxua ipinten dauan egunean, betiko janaria izango dau. Arrautz-bako egunetan, berantzat be barau eguna izango da.

Andratxuak be bera erabagia oso-osoan betetzen eban. Oilo-abian arrautz berebil, gorri, ederra arturik mozukatzen ebanean, oiloak bere betiko eguneroko otamena izaten eban. Ostera arrautz-mozukatzetik ez zan egunean, andratxuak barau egiten bearturik zanean, oiloak be bere biroa kezkatu izaten eban.

Mendekatze polita nire uzandreak egin daustana, iñoan oiloak. Bai uzandrea, auzi onetan garaille zara! Gosez il ez naiten, egunero arrautz eder bat barriri be opako dautsut, ez dot beste urten-biderik.

Ausnartu eizue; txindortxuak, jarraitu eban, Filomenaren oiloari jazorikoaz, zuen arazoaz, ipuiñ onek zer ikusirik dauan ala ez.

Txindorrak edestu eutsen ipuiña entzun ondoren, oiloak eurak be euren gangarrak makur, betiko euren zeregiñetan saiatzen ziran, au da, arrautz bat egunero andra-ugazabari opatu, ta txakurra bere egoitz zan txakurtokirantz lo-zorrotxu bat egitera joan zan.

Txindortxuak basetxean beste arerio, etsai, batzuk be ba ebazan. Euretariko bat etxeko katarra. Adiñeko katu maltzur, zital eta ganera eiztari guztiz trebea. Katarrantzat txoritxuak, txori txiki-txuak, jaki eztitsu, gozoak dira.

Katarra ordu luzeak txindorraren zain, txoriak uts, oker bat noiz izango eban zain egoten zan. Orretarako antolabide sekulakoa eban. Bere gorpuzta margo nabarduna zan ezkerro, laba aurrean negurako bear izaten ziran mukur eta egur pillotuen artean erdi-barneraturik, ederto itxur-aldatzen zan.

Txoriak bere janari moxorro, ar, euli, koko ta baita be egaztien otamenaren ondakiñak bereziki lurrean aurkiturik, bere egoitza zan intxaur adarre-

tik lurrera jaitsiten zanean, bere biroa bete naian ajolagabe uts, oker, bat noiz izango eban zur, katarra inguruan zain egoan.

Igande goiz baten, andra-etxaguna igandero egiten eban bezela abere ta egaztiei janaria banandu ondoren, lan au egunero egiten eban, jai eguna zan ezkerro, zortzi ta erdietako Mezara joateko apainketak egiten saiatzen zan.

Bitartean katarra, basetxe beratako katua, ez egoan lo, ez. Katar maltzurra bere asmakisunetan, txoritxua arrapatzeko jokabidea antolatzen saiatzen zan.

Eleizako kanpaiak, iñoan katarrak, eleiztarrei mezara joateko bearturik zirala, Igande izanik, Meza osoa entzun bear ebela adierazoz, deadarka dagoz. Nire uzandrea jai-egun guztietan zortzi ta erdietako Mezara joaten da. Bere soiñeko, jantsi, dotorenakaz apaindurik ikusi dot, eta orduzkoa dan lez, belu, berandu ibiltea ez jako guztatzen ta, etxetik beingoan urtengo dau. Etxeandrea ba doa eleizara ta azkenengo kanpai-deadarra be izan da. Aukera paregabea gaur txoriki gozo apur bat gozaltzeko nik dodana! Eta zelako ezkil-ots gozo, biguna dabe gaurko kanpaiketa oneik!, pozez beterik abotik adurra dariola ebala, Katarrak iñoan.

Txoritxua oilotokia aurrean geratu ziran arto-ore zatitxu, ondakin, batzuk jateko asmuz jaitsita, arto-ore pikakadaka egoan bitartean, katarra bere

eskutunetik urtenda, arreta aundiz, bere gorputz osoa, burutik buztanaraño narrastuz, geldiro-geldiro txoria egoan tokirantz, lekurantz, txoriaganantz urreraturik, egaztiak bere ajolagabetasunean uts bat noiz izango eban, erpakada bateaz txoria arrapatze-ko asmuz, joian.

Txindortxuak etxe aretan areriok ba ebazan, baiña baita be bere babesle, jagoleak be, orretariko bat etxeko txakurra. Etxe-txakur baten eginbearra zuzen be orixe da ta, au da etxe, etxalde ta etxeokoa zaindu, eta berak, txakurrak, bere andra-gizon uga-zabentzat txindortxua txori bat baño geiago zala ba ekian, eurentzat senide, aide bat geiago zala, ba ekian.

Igande goiz aretan, txakurra beti bezela etxe aurrean, basetxe inguruan zer jazoten zan, zain egoan. Katarra narraz-narraz, arreta aundiz, mukur artetik urtenda, bedar-zaar moltso baten izkutatuta egoala, ta txoria oillotegi aurrean lurrian arto-ore ondakiñak jaten zala nabariturik, katarraren asmua zein zan argi agertu jakon.

Txoria ajola-gabe, gozoro arto-ore jaten saiatzen zala ikusirik, txakurrak ausi, zaunkada, gogor sara-tatsu bat egiñik, katarra egoan lekurantz urreratu-ta, oiuka iñotsan:

Arlote, katar maltzur, zital ori!, lotsa-galdun, iñoiz lotsarik izan ba dok, katar madarikatu ori! Txoria baño otamen ohea neuk emongo dautsat!

Neuk andra-ugazabari mezatik etxera eltzen da-nean, ire zitalkeria jakin-azoko jautsat!, eta gaurtik aurrera ire eguneroko otamena, gitxitu dagiotsula esango jautsat!

Txori txiki epel, babesgabe, errukigarri ori il eta jateko zelako erraiak dozak? Ire eginbearrak alde batera itxita, bazterturik, sagu ta erratoi arrapatzea dan ire lanbidea bazterturik, txori errugabea eure erpa zikiñakaz iltea, ez joat iñoiz zillegiko. Orrez ganera alegin guztiak egingo joaz, zigortua ta beraz gogor zigortua izan eiten, saiatuko nok.

Katarra burua makur, buztana anka artean txakurragana urreraturik, apal, abots maitekeroz, gei-go olako gertaerarik ez dala izango zin egiñez, parkamena eskatzen dautso.

Beingoagaitik nigandik parkamena dozu, baiña geiagotan olako, zuk nai izan dozun-lako zitalkeririk, ez dagidala ikusi, garrazkeriz txakurrak iñotsan. Ara, aditu eizu, zuk zin egin dozu, txindortxua baketan itxiko dozula itz, berbea, emon dozu, eta jakitun izango zara lurralde onetan, Euskalerrian emoneko itza, berbea, ukatzea, oben astun bat dala. Olan da ze kontuz ibilli zaitez!...

Txindorra arroputz, bularra plast-egiteko ebalá, egazkada bat egiñik, intxaur adarrara igonda, sekulako txio-txio, eresi maitekor, gozo, lilluragarri bateaz txakurra bere babeslea, eskertu eban.

Txindorra txori bakarti da, beste txindor batzu-

kaz aldran eta gitxiago beste enda edo motako txoriekaz ikustea ez da erreza. Baiña gure ipuiñeko txoritxuak auzoko basetxean adiskide batzuk, txindor adiskide batzuk ebazan.

Bere egoitza zan intxaur adarretik asao barik txindor-eme lirain eta alai bat guztiz begikoa egiten jakon. Sarritan astia emoteko atxakia izanik, beragana, txindor-emegana arto-ore apur bateaz joaten zan.

Ziurki txindor bikotea alkar-maitamendurik ziran, baiña txoriak euren ezkontzak, euren abituak egiteko ta txori-kumak izan, egutaro beroa bear dabe. Naizta idazlearen ustez txindortxuek euren lurraldetara erriratu ziranean, ezkondu zirala esan gertarera onetzaz ziur-ziur ez gara.

Ostera alai ta atsegintsu alkarregaz jolasten txori bikoteak eguna emoten ebela ba dakigu. Txindor bikotea zugaitz adarretik zugaitz adarretara egazkada txiruliru saratatsuakaz guztiz alai orduak emoten ebezala ba dakigu. Jolasketa oneik eguraldi eguzkitsu ta epela zanean izaten ziran. Ekaitz, edurra ta leia, izotza, jasan eziñekoa zanean, orduan txoritxuak makal, itun, euren lumatxuak gorantz ebezala, lumartean burua sarturik, biroak erdi-utsik, egoera larri, mingarria izaten jaken.

Olako aldietan, ekaitz, edurtse ta leitse aldietan, itxasoko aize otz indartsuek, intxaur adar billostuak astintzen ebazanean, inguruetako lurraldeak, beste

aldi baten ain orlegi, eze, loratsu ziranak, orain lurralde oneik edur oial-zapi edatsu batek estaldurik, otza ta gose bidalikide ez-naiezkoak ziranean, orduan txindortxuari bere aingeru-zaindari zan andra-nekazaria, txoriaren atsekabe, samiañak leundu naian, agertzen jakon.

Basetxeko leiotariko bat idegita, andratxuak txoriari esaten eutsan.

Zatoz, erdu ona epeletara!, ara ementxe dakartsut egin-barri dan arto-ore bero-beroa ta gozoa!... Otzez eta gosez erdi-illik zagoz or eta erdu, zatoz ona epeletara, txori errukigarri ori!...

Txindorrak berak be bere biotz onduna agertuz, txio-txioka andratxuari bere esker-ona adierazo naian, bere izkuntzan esaten eutsan.

Milla esker andra langille, biotz ondun ori! Eguraldi negargarri onetan opatzen daustasun arto-ore ori, kezkatzen asita dan nire biro onentzat ederto jatorko. Andratxua larregi ez ba da beste mezede bat eskatuko neuskizu. Gero, arto-ore jan ondoren edurtze irauntzen dauan bitartean, ementxe berton, leio onen baztertxu baten, astia emotea, gaba ta eguna emotea, zillegi eistazu, txindortxuak abots maitekiroz eskatu eutsan.

Bai, zelan ez. Leio onetatik gela onetara sartu zeinteke, baiña emen baño askoz be obeto, arriskugabeago, epeletan, atsegintsu, atariko zuretariko baten ezarrita dagon elai-abitxuan, gozoro egongo

zara. Beraz, bertan gau ta egun luzaro egon zeintekere, elaitxuak Udabarria ondo berotu arte emendik ez dira agertzen, andratxuak esan eutsan.

Elai... elaiak...! a bai ezagutzen dodaz. Beste lurralde beroagotarantz joatean, eurakaz bein baño geiagotan topatu naz. Egazti guztiz egazlari trebeak dira, iñotson txindorrak, eta unetxu bat be galdu barik, egazkada baten atariko elai-abitariko bat, arik aurrera bere egoitza izan zan.

Inguru aretan oilotokira txoriaren guztokoak ez ziran beste ostarari batzuk be euren eguneroko janaria billa joaten ziran. Or ogei bat artatxori aldra saratatsu bat. Aldra onek, artatxori aldra onek, oilotoki barnea gabaz bere logela izaten eban, eta egunez, goiztar asita al eban artagaro ta arto-ore lapurturik, jakiña, txindortxua, bere otamena gitxiagoten eutsen artatxorikaz guztiz asarre, sekulako borroka, zalaparta bere etsaiak uxatu naian, antolazten eban. Naiz ta oilo ta txakurra, etxeko txakurra be auzi onetan txindortxuaren alderdikideak izan, artatxoriak leenengotan ez ziran amoratzen.

Izan be artatxoria egazti borrokalari gogorra da, berantzat jaki guztiak gosez danean egokiak dira, naiz ta bere izenak, arta-txori, artagaro jan-zale adierazo, Negu gogorrean arto, gari edo beste azitariko gabe izan, gosez artatxoria ez da ilgo; mamarro, euli, urun, ore naiz igaliz bere biroa beteko dau.

Borroka onetan txindortxua ekin eta ekin, ori bai

oilotokiko beste egaztien laguntzagaz, garaille izaten zan.

Artatxori deabru orreik, zoaze zuen janari billa beste toki batera!, oiuka egazti aldra osoak esanez, artatxoriak uxaten ebezan.

Txindorrak oiloei bere esker-ona agertze naian, txio-txiroliro maitekorrez, atsegin-azoten ebazan.

Arterago, aitatu dogun bezela txindortxuak egun euri, ekaitz, otzdunetan, basetxeko atarian egozan elai-abitariko baten asti luzeak emoten ebazan. Elde au dala ta bertan, atarian, beste txoritxu bat ezagutu al izan eban.

Antontxu basetxeko andra-gizon etxagunen seme zaarrena, txori zale amorrotua izanik, txori ainbat kaiolatuta beti eukiten eban, oraingoan kardantzillo, jilgerutxu bat zan. Antontxuk neguko ekaitz eta batez be egun edurtzetan, txori-arte bitartez artatxori, txonta ta txirta ugari arrapatzen eban, eta udako bero egunetan bizka, gaztelarrez liga deritxona, erabilliz, kardantzillo anbat barik, Antontxun basetxean ez zan izaten.

Otzaillaren egun ekaitzen eban egun baten. Txindortxua, andra-uzandreak opa eutsan arto-ore bero-beroa jan ondoren, etxeko atarian eukan egoitz, elai-abitxura bazkalondokoa egiteko naian bazterturik, kardantzilloa agurtu eta esan eutsan.

Egun-on kardantzillo jauna, zelan doatsu bizitza? Ederto-ederto, txindor jauna. Jarraian nigaz


alkar-izketa bat egiten ba dozu eskertuko zaitut, kardantzilloak erantzun eutsan. Zuzen be zugaz izt egiteko gurari bizi-bizia neban. Ba dakizu, orain, aldi onetan, gauak guztiz luzeak dira, ta oso-osoa lotan egotea niretzat larregi izaten jat. Bart, ez dakit zergaitik, asti luzeak izartuta emon dodaz. Asti, aldi oneik zugar gogoratzen izan dira, zure bizitzazaz oldozten gabarik geiena emon dot.

Izan be, txindortxu maitea, zure bizitza benetan gogorra da, kardantzillotxuak jarraitu eban. Eguneroko andra-uzandreak emoten dautsun janari ta ostatuari, ostatu epel-epelari esker bizirik urten al izaten dozu. Andra biotz ondun ori izango ez balitz, neguko edurtze eta izotz, leitze ikaragarriak ez zeunkez jasan al izango, zugaitz andar anbatetik dindilizka izotz-kozkor bat bezela, geratuko ziñake. Zergaitik, gure andra uzandreaken izate esku-zabal, onbera, maitekorraz ez zara baliatzen, eta ementxe berton, nire alboan kaiolatxu baten gau ta egun nire antzera egotea, ez dozu lortzen? Begiratu eizu nik daroadan sekulako bizitza oneri. Goizaro, utstxu bat be izan barik, kaiolatxu au, nire egoitza, garbitu ondoren, egun osorako janari ta edari oparotsua opatzen dauste. Eguraldi otz eta bero larregietatik aterpe onetan babestuta izaten naz. Opari guzti onein ordaiñez, txio-txio alai, maitekiro ta txera batzuk nire andra uzandreaki egitea da, benetan atsegin-sari bikaiña. Gulako izaki arrunt, ezjakin,

makal, ergel batentzat, ameseta bat dirudian bizitza zoragarria!

Txindortxuak apal, arreta aundiz kardantzilloak iñotsona entzuten eban, eta astiro-astiro, erantzuna bein eta barrero ondo oldoztuz, dirautso:

Adiskide, zure bizitza nasai, arduragabe orregaz, eguneroko otamen eta ostatua atsegin-sariz lortuaz, neu be poz, alai izango nintzake, baiña ez dot uste osoz atsegintsu izango nintzakela. Eguneroko jan-edari, eguraldi bero ta otzetatik norberan soña babesteko jazki, oiñetako ta bearrezkoa dan egoitzaren ganerik, beste altxor ikertza ezifneko lilluragarri bat, Goi-egilleak atsegin-sariz, doan eskeiñiko bat dogu, AZKATASUNA. Zoritxarrez, zuretzat zoritxarrez, zuk ez dakizu zer dan askatasuna, zu ez zara: iñoiz gozatu izate zoragarria orretan...



Katarra narrastuz txindortxua arrapatu naian

Zer da askatasun ori, ta ze onuragarri dakarst nire atseginerako, atsegintsu izan naiten? kardantzilloak txindorraren bakar-izketa etendurik, itaundu eutsan.

Ara adiskide maitea, txindortxuak iñotsan, Goizaro, goiztar, eguzki argitasun izpiak Goikomendi tontorra gaiñeratzuz, gure bizitza alaitu naian gugana eldu baño leenago, beste mendi tontor ugari gaiñeratu bear izan dabez. An, urrunean, guztiz asao, millaka erreka ta ibai ur gardendun politak, leiza, troka, mendi ta baso abarotsu, ta lurralde aran zelai orlegi, eze, lora usaintsu lilluragarriakaz apaindurik, dagoz.

Mendi ta baso magal eta barrenetan sortzen diran urkuntz ur-jarioetatik millaka errekatxu ur garden-dun, saltokariak, ibai urtsu ta sakonetan euren urak ixuritzen dabez, geroago auren bidalian jarraituz, millaka ta millaka arrain mota, larrantz ta margo ezbardinñetakoan egoitza dan itxas-aundietan itxasoraturik, ikuspegi zoragarria begizatuta, sorgor-al-di, zoriontsu azaldu eziñeko bat ba leiteke zuk iza-tea.

Muga gabeko itxas-aundi orreik bat baño geiago dira, gure ludi, mundu, onetan bat baño geiago dagoz, euratan arrain txiki, larrantz bezela zu eta ni baño txikiagoak, arrain artain eta gure basetxeko bei ta idiak baño be aundiagoak diranak euren janari ta bizi-bidea, ur orreitan dabe. Izaki bakan oneik

itxasoko ur gardendunetan eguzki lilluragarria opatuz, Goi Egilleari euren esker-ona agertzen dautxe. Izaki arrunt, bakan oneik itxaso zabalean euren otamena aurkitzen dabe, ta azke izanik, zoriontsu daroe euren bizitza.

Ara Kardantzillo maitea, ni umetxua nintzala, nire leenengo egazkadak egin-barria nintzala, nire ama maiteari itaundu, galdetu neutsan.

Ama, mendi goi orreik baño arago, asoago, lurralderik ba dago?

Bai semetxu, nire amak erantzun eustan. Mendiska orrein ganetik egazka egiñik ba zoaz, mendi lerro orren beste aldean, ostean, mendi magalean mota ta orri ezbardindun zugaitz adar-tsuak eurentzat abaro egiñik, txori txiki ta aundi adarretik adarrera, zugaitz adarretik zugaitz adarre-ra, saltokari ta baita be askatasunean pozez beterik, euren txio-txio polit, eztitsuakaz ingurua alaitzen saiatzen dira.

Txori-soiñu onegaz sorgoturik zaran bitartean, mendi magaletik jaitsita, errekatxu ta ibai ur garbi, ozkirridunak aran edatsu baten lurra narotuz, zure begien aurrean agertuko dira. Ikuspegi zoragarri-dun dan aran ori zearkatuz, beste muru-mendi ta muru-aitz ostean, lur-bizkar ugarietako landa, lantzar orlegi, eze, bedartsuetan artxo ta arkumeak euren sakelak gozoro betetu ondoren, ardi-aamaen errapatetik urtenda saltuka dantzaldi polit bat iru-

diturik, eta mendiska barrenetako solo ta ortuetan andra-gizon nekazariak uzta barriak lortzeko naian lan gogorrean saiatzen diran bitartean, euren ume-txuak solo bazterretan alai, irribarretsu jolasten, ikusi al izango dozuz.

Baiña semetxu, nire itzaldi motel onegaz gogaitu egingo zaitut...

Ez ama, ez, jarraitu, ez eizu eten zure itzaldia... nire guztokoa da ta.

Itxasoa, ara emen, jarraitu eban amak, ludi onetan daukagun altxor garrantzitsuenatariko bat. Muga gabeko itxas zabal oneitan arraiñak ez eze gizaki, gizasemeak be bere janaria, eta beraz ugaria, aurkitzen dau.

Gizaki, gizasemeak, itxas zabal, sakon, oneitan bere janari, otamena, eguneroko janariaren ganera, beste sorki, eskuarte batzuk, gizartearentzat guztiz onuragarriak diran sorospide, eskugain batzuk be lortzen dauz.

Neurri ta mota ezbardifñetako itxasontziaz balia-tuz, gizakiak ia muga-bako itxas zabal, edatsu orreik zearkatzen dauz, batzutan arrantzan egiñez, gizartearentzat janaria lortuz batera, dirutsa, txanpon politak eskuratu. Baita be itxasontzi aundiakaz, beste lurraldetan, guk oraindik ezagutzen ez doguzan lurraldetan bizi diran luditarrakaz arremanak izan eta ondasun asmau eziñekoak bai dirutan eta baita be jakintasunean, luditarrentzat lortu.

Baiña semetxu, nire amak esan eustan, or aran orretan edo mendi tontor orreitan ez eze muga-gabeko itxas zabal, izugarri orreitan mundu, ludia, ez da amaitzen.

Toki guztietan, ementxe bezela, zuk eta nik eza-gutzen dogun ludi zati txikitxu onetan bezela mota ezbardifñetako gizaki, gizasemeak bizi dira. Atso-agure, adiñeko, gazte ta umetxu, aurtxuak, euren arazo, poz, neke, barre ta negarrakaz, bizi dira.

Ara adiskide, txindorrak jarraitu eban, biotz-gogor, leiordun, izaki biotz-gabe, bera be, sorgortuta geratuko litzaken ludi onetako esku-gain, sorki lilluragarri orrein ganetik, guztiz atsegingarriago ta onuragarriago, AZKATASUNA da:

Ludi onen, gure mundu onen oroz-maitasuna, Egilleak esker-zaroan opa dauskun eskertatu eziñeko AZKATASUNA deritxon doe lilluragarriari esker, gozatu al izango dozu.

Ara emen kardantzillo maitea, nire eretxiz, zer dan ber-bearrezkoa guztiz, oroz, atsegintsu izateko, eta zu zoritxarrez, kaiolatxu orretan atxilotuta izanik, azkatasun gabe zara.

Jakin bear dozu adiskide, naizta gu txori, egazti makal, ezerez-uts batzuk izan, ludi onetan jan, edan eta txio-txio, ori bai polit eta alaiak, egiteko baño zerbait geiagorako egiñak garala. Zu zeure biroa bete-beterik eta zeure egoitz, kaiolatxu, epel-epela lorturik, zoriontsu zara. Zuk betirako zeure ostatu

ta otamena lortuaz, zeure arazo guztiak zuzendu dozuz. Lagun-urko, gizartea, zuk ez dozuz ezagutzen edo ez-ezagutu egiten dozu. Zuk ez dozu senide, aide, adiskide es beste ezelako kiderik.

Izaki biotz ondun batentzat inguingarria dan berekoikeria zure biotzean barneraturik dozu, ta ori grifia guztiz kaltegarria da. Norberekeria bazterturik, alkartasuna ta lagun-urkoari lagundu ta mezedegiteko nai bizi-bizia lortzen saiatu zaitez. Azkatasunean bizirik, azkatasun zintzo baten bizi ezkeru, ludian diran izaki, mendi, baso, troka, aran, erreka, osin eta ortu-solo zugaitz eta lora polit



Txindortxua andra-nekazarien inguruan egazka.

usaintsuak ikustatzean ederretsita sorgortuz ganera, gizartea ezagutzeko aukera izango dozu. Lagunak eta adiskideak eukiteko aukera izango dozu, ta baleiteke, zergaitik ez? kardantzillo-eme bat ezagutu ta beragaz maitamendurik alkartu ta kardantzillo seme-alaba batzukaz sendi zoragarri bat osotzea...

Azkatasuna, iñoren azkatasuna menperatu gabe, zapaldu barik, altxor zoragarria!...

Gai onetzaz, azkatasunatzaz, txindortxua gogoberoz saiatzen zan bitartean, kardantzillotxua arduragabe, berantzat azpergarri zan itzaldia eten eban, esanez:

Ara txindor jauna, nik, txindorrari esan eutsan, zuk bikain azaldu daustazuzan toki eder, lilluragarriak ikusi, ta zure azkatasunak opatzen daustazan egoera sorgorregarriakaz gozatu baño, ementxe nire kaiolatxu onetan gose ta otz gabe bizitzeaz, zoriontsu naz. Bizi-bide au aukeratu dot, eta nire nai, guraria olan jarraitzea da. Zure onu, aolkuekaitik milla esker, agur.

Txindor eta kardantzillo arteko alkar-izketa olan amaitu zan.

Kardantzillo bere bizi-bideaz, naizta atxilotua izan, zorionsua zan. Bere bizia arazo gabe joakon, berantzat zio naikorik zan zorionsua izateko. Menpekoturik, txiki-txikitatik menpekoturik ego-teak eragiñez naimena galduta, kardantzillo errukigarria gaitasun gabe, bere zorion-mugak jan-edan

eta epel-epeletan lo egitea, ludi onetako zorion utsak dauz.

Parkatu eistazu kardantzillo maitea, txindorrek jarraitu eban. Aitatu dautsudan ludi orretan dana ez da lilluragarri, sorgogarria. Arrituko zaitun egite, luditar gizakien egite batzuk azaldu bear dautsudaz.

Ludi, mundu au osotzen daben lilluragarrizko baso, mendi, erreka, ibai, landa zelai, lora usaintsu, zugaitz, itxaso, egazti, abere, altxor zoragarri guzti oneik, gizaki, gizasemeak, menperatzen dauz, bera da guztien jaun eta jabe.

Euskubide-bakar au, gizakiak ludi onetan diran ondasun, altxor zoragarri oneikan dauan eskubide bakar au, Goi Egilleak emonekoa dan ala ez, ez dakit, baiña bera da, giza-semea da altxor guzti onein kudatzaille ta arduraduna.

Tamala da, baiña jakin bearrezkoa dozu, gizakiak, merezi-gabe bere eskuetan jarri dautsoezan ondasun zenbatgaitz guzti oneik, eta azkatasuna bera be bai, apetaz artu ta eurakaz gozatzeko astia be gitxaigotuz, laburtuz, iruntsi, suntsitzen saiatzen da.

Mendez-mende ur garden, garbi-garbidun izan diran errekatxu ta ibaiak, orain ur zikin, loi, kutxaduraz beterik agertzen dira. Mendi ta baso, egazti ta abere, basa-piztientzat abaro izanik, antziña zugaitz beterik, areitz, pago, urki, gaztain, arte, leizar, gur-

bitz, otabar beterik abarotsu ziranak, orain mendi-gorri, sasiz, elorri, arantzaz josita, ikusten dira.

Mendi magaletan, barrenetan areitz, pago, leizar, gurbitz, otabar beterik abarotsu ziranak, orain mendi-gorri, sasiz, elorri, arantzaz josita, ikusten dira.

Mendi magaletan, barrenetan areitz, pago, leizar kerizpetsupetan sortzen diran urkuntz, iturburuetatik doazan ur ozkirri, garden, akatz-gabeak errekatxuak sorturik euren urak ibairotu orduko, ta sarritan leenago be bai, kutxaturik, guztiz kutxaturik, tamalez ikusten doguz.

Azkatasuna bera be, leen muga-gabe, zintzo zan azkatasuna, orain toki, erri askotan, guztiz mugatua da. Beste batzuetan jauntzargopean jausirik, erri, nazio asko menpekerian bizi dira.

Bai adiskide, gizaki, gizasemeak, ludi onetan dauan jokaera guztiz ulertu eziña da.

Kardantzillotxua menpekotasun ala menpekerian bere guraria lorturik, txindorraren aolku, onuak entzuteko ez zan gertu, eta bereala txori bien arteko alkar-izketa etenda, biak euren zaregiñetan, jarraitu eben.

Ipuin onetan agertzen diran aintzindarien arteko alkar-izketa, gertaera, arazo, poz-alaitasun eta neke, atsekabeak, urtero bardin zamarrak izaten ziran, baiña euren bizkarretan joandako urteak eragindako makaltasun, aulkutasuna, argi nabaritzen zan.

Udagoineko egun epel, egoi-aize firi-firi, batek inguruetako lazto orbelak astintzen ebazan egun baten, txindortxua urtero egiten eban bezela, basetxe ingurura eldu orduko, bere intxaur adarrean kokatuta abeslari bere leenen-leenen txio-txio maitekorra, basetxeko andra ugazabarentzat izan zan.

Egun aretan basetxeko biztanle guztiak goibel, ixil-ixillik ziran. Arterako oïlo-kar-kar abesti ez oilarraren kukurruka arro saratatsua, ez da be kardantzillotxuaren txio-txio alai, gozoa ez zan entzuten. Illeta bat dirudian antzerki-areto aretan, txindortxuaren txorrotxio deadarrak ez eben izan erantzunik. Berak itxaroten eban andra-nekazariearen erantzunik ez eban izan.

Ostera txakurrak bai, au be naiko zaarkotxuta, erantzun eutsan.

Adiskide, ugazabandre agurtzen ez zaitez saiatu. Ille batzuk dira gaixo zital baten ondorioz, betirako, guztiok samin, oiñazez ondaturik, itxi, utxi, ginduzala.

Txindortxu maitea, bere oroimenez gurtz-eresi maitekor, lilluragarri, andra biotz ondun areri dagokion bezelako abesti gurgarri, sorgogarri bat, zeru goietara bialdu eiozu.

Txakurto jauna, naizta zugandik entzundako albiste mingarri orrek guttiz goibera, buruzgabe ezarririk nazan, oraintxe emen berton, zure ta nire naia dan gurtz-erezi zoragarri bat, andra esku-zabal,

biotz ondun areri dagokion bezelako abesti lilluragarria, lurralde onetako biztanleak entzun al izango dozue.

Bereala txindortxuak txakurraren guraria bete eban.

Txindortxua bere intxaur adarrean ondo kokatuta, iñoiz, iñorgandik entzun dan eresirik maitekor, bigun, gozo, eztitsuak bere eztarritik urtenda, inguruetako baso, mendi, muru-aitz, mendi-lerroetan oiartzunduz, eta aran, zelai, toki guztietara edaturik, erri ta albo-errietako biztanle, izaki guztiak, lurralde areitako izaki guztiak abesti, eresi, ain zoragarria entzutean, sorgoturik geratu ziran.

Eldu gara irakurle, funts larregigabeko ipuin onen amaiera. Bera dala ta, ipuiña dala ta, zuk irakurle euskera gure izkuntza erabilteko aukera izan dozu, ez da gitxi, ostera ipuin onen egille, idazleak, zio berezia izan dau liburutxu au idazteko.

Udagoineko goiz aizego egun baten, bere jaiotze basetxeko atari aurrean, ipuin onen egilleak, bertako umetxuei jausi jakezan gozoki ondakiñak, liburu onen argazkitariko baten agertzen dan txindortxua, gure andra-nekaziaren BERE TXINDOR-TXUA, ikusi ebanean izan eban biotz-zauzkada sutua, idazkitxu au euskeraz idazteko zio naikorik izan zan.

Bai irakurle, ipuin onen antzerkaritariko bat, andra-nekazari donea, nire ama maitea izan zan.

Bere zaartzaro luzean sapailo, balkoian, jezarrita, eguraldi onak zillegiten eutsanean, ordu luzeetan txindortxua etxe, basetxe alboko intxaurrean kokatuta abeslari bere laguna izaten eban.

Etorri da, eldu da nire txindortxua!... Nire txindortxua intxaur ganean alai niri abesten saiatzen da!... Nire txindortxua...! Nire txindortxua...!

Bai bere txindortxua zan.

Euskeraz idatziaz, urkuntz idazki-jarioak euskera-zaletasunezko erreka ta ibaiak sortuaz, euskalerriko lurralde toki, bazter guztietara euskera gure izkuntza edatu daiten, euskotar gogo, naikuntzak, narotu dagiezala.

LUKAS BASA-TXAKURRAREN ZORIGAITZAK

Gaur-egun gure lurraldetan, gure baso ta mendietan ia ikusten ez dan basapizti au, beste aldi baten, antziña, Euskalerrian, batez be artzaiñakaitik, guztiz ezaguna zan.

Otso, basa-txakur, onein janari berezia auntz, ardi eta euren senideak izanik, argi dago, artzaiñen arerio bereziak dirala.

Gure ipuiñeko otso, basa-txakurra, Lukas eritsona, bere bikote Erramona ta euren seme-alaba, otso-kume biaz, Irakotz erritxuan bere bizi-bide ta egoitza eukan.

Otsoto sendo indartsua, larogeta-amar kilotik gora astuna, eiztari trebe, eriotz-gille biotz-gabeko zitala, inguruetako artzain eta nekazari aberedunen lazura, buru-austea zan. Bera dala ta, Lukas otsoa

dala ta, erri-alde areitako nekazariiek amaikatxu artxo, ardi, auntz eta txaal jaio-barriak, galdu ebezan.

Orduan, aldi aretan, Lukasek bere egoitzako jaki-gela arkumeki, okela samur gozoenakaz bete beterik eukiten eban. Bai, bere bizitzaren ezti-aldia zan. Geroago bere bizitza, bere bizi-bidea, guztiz aldatu jakon. Bere seme-alaba biak eurak aukeratu eben bizi-bidetik jarraitzeko asmuz erbesteraturik, euren albiste, barririk, ez eban izan. Erramona bere bikote, andrea, gaixorik luzaro iraun ondoren ilda. Lukas bakardaderik aundienean geratu zan.

Emen dogu ba gure Lukas Irakotz erritxuan bakar-bakarririk eta ganera zoritxarrez, berantzat zoritxarrez, bizkarrean urte mordoa. Iñoren laguntza gabe, lagun urkoarentzat kaltegarria izan dan batek, beragandik, lagun-urkoagandik, laguntza izatea ez da guztiz erreza ta, atsekabetuta, goibel, itun, oldozkor, zer egin edo zein norabide artu jakin barik, oldoztu ta oldoztu, Lukasek egunak eroazan, obeto esanda gabak eroazan, lorik be egin barik. Azkenean bere jaiotze erri Irakotzetik urruntzea, erbesteratzea erabagi eban.

Erri urrun, asao-asao dagon batera joango naz, Lukasek bere baitan iñoan. Bertan, ezagutzen ez naberen erritxu orretan, nire bizitzatzaz ezer ez dakien erritxu orretan, nire itxura errukigarria ikusirik, nire zaarkotxo aurpegia, nire lepoa narrua ule


barik, nire gose ta otz itxura onegaz nor ez da errukituko ba?... Bai, ziur bertan, laguntza bezela jaki ugari ta ostatu bero-bero bat eukiko dot.

Zorrotxu baten, lepo-zorro baten, geratzen jakozan tresna apurrak, ogi ta arkume erdi-uztel baten zati txiki bat janaritzat arturik, or doa gure Lukas bere bidalian, ludi, mundu oba baten billa.

Lukas erbesteratzean, bere bidalian, iru edo lau erritan aurkezturik, danetan erantzun bardiña izan eban.

Emen, gure erri bake-zale onetan, zulako ta zure antzeko luki, artz, azeri eriotz-gilleen aztarna, usaiñik be ez dogu nai. Bereala emendik urrundu zaitzez, bestela, lotuta daukaguzan erbi-txakurrak zure usaiña nabaritzen ba dabe, galdua zara.

Azkenengo aurkeztu zan erritxuko eleizarako bidea alde batera itxi, utxita, esker aldetik aran ezo, loratsu, eze eder bat zearkatzen dauan erreka ur gar-



Kiko ta Iru, Maxin ardi-txakurrak jolasten.

dedun, zapartaria, jauzkada bateaz beste-aldeataurik, aldatz-gora pikedun batetik apur bat igonda, mendiska erdi inguruan tontortxu zelai bat agerturik, muru-aitzpean, Lukasek bere egoitz barria era-
tzea erabagi eban.

Nire azken urteak emoteko toki berezia aurkitu dot, Lukasek bere baitan iñoan. Arkaitzpe onetan, oparo, buru-auste gabe bizi al izango naz. Bakar leku au, zugaitz eta muru-aitz onek inguratuta, abaro, babes-leku sekulakoa dot. Bai ementxe bertan aitz-zulo onetan nire azken urteak emongo dodaz.

Mendiska tontortxua goi alderik muru-aitz, aitzgaraiz, eta beko aldetik zugaitz adartsu, elorr-arantz indartsuak abaro bat osotuz, inguratuta izanik, tokia gure Lukasentzat babesleku ezin-obeza zan.

Bere arerioak, Lukasen etsaiak, eta egia esan lurralde aretan ugari ziran, naizta eiztari trebeenak eta erbi-txakur onenaren laguntza izan, Lukas konturatu barik bere egoitzara urreratzea, eziñekoa zan. Lukas, arkaitzpe, aitz-zulo aretan aurkitu eban babesleku, abaroaz, atsegintsu zan.

Lukasek bereala aitz-zulo inguruko orbel batzuzkaz oge apatz-apatz bat egin eban. Oge ganean bere iztartzar zaarrak luzatu ebazan eta nasai-nasai etzunda, lo-zorrotxu bat be egitea lortu eban. Bere etsai, areriokandik Lukas gaizkaturik ikusten zan, eta beraz zoriontsu izateko zio naikorik. Baiña

bizitza onetan, nasaitasun aldietan be, urdailla bete bear da, egunero ta bein baño geiagotan ba da, oba.

Elikatze arloan, bere elikatze arloan, gure basatxakurrak arazo gaindu eziñekoak ebazan. Bere iztarrak, bere iztar zaarrak, artxo, arkume, ardi ta auntz, abere onein atsean, eurak arrapau naian euren atsean ibilteko, astunegiak ziran. Orrez ganera, bere aboan agin, ortz, bi edo iru baño ez eukazan, eta eurak lokatuta izanik, artxo ta arkumeki bigunbigun, samur-samurra, izan ezik, ezin eban mamurtu.

Gure Lukas antziña baten, bere gaztaroan, bere jaki-gelan janaririk ez eukanean, gaztain, ezkur eta beste igali batzuzkaz be elikatzen zan, baiña orain igali umo-umoak eta guztiz bigunak uts-utsean jan al izaten ebazan, Benetan egoera larria Lukas otsoarena!

Lukasen egoitza zan aitz-zuloa aurkitzen zan mendiska beratan, beste mendi magalean, Maximo, Maxi, bere auzokideak olan deitzen eutsoen, adiñeko gizon eskon-gabe, mutil zaarra, gizon deduzko, langille zintzo, baiña txantxelaria be bai, artalde eder, ardiz oparotsu, bei bikote bat ortu, soloak landu ta berantzat, Maxintzet, esne apur bat lortu, ardi-txakur bi ta beor bat lagun ebazala, Larretxe basetxean bizi zan.

Ardi, ardi-auntz ta arito bi, guztitara eunda berrogetaamar bat abeltzek bere artaldea osotzen

eben. Maxik urtero, koipea urte osoan sukaltzeko euki naian, amabost bat arrobako txarri eder bat azi, ta Gabon inguruan ilten eban. Bere jolasketatarako Maxik, ludi onetan lan ez eze jolastu be egin bear da ta, beor gazte gorriska eder bat be ba eban.

Abere guzti oneik eta etxaldea zaindu, jagoteko, Maxik, Kiko ta Iru ardi-txakur zintzo, trebeen neurriz kanpoko laguntzan jabe zan. eskerrak eurei, Kiko ta Iruri, bein baño geiagotan bere artaldeko arkume anbat edo beste, Lukas otsoen erpa zikin, zorrotzetatik gaizkatuak izan ziran.

Beor gorriska gazte bat, Maxik bere jolasketatarako ebalá, esan dogu, ta ez da guztiz egia.

Maxi mutil-zaar, txantxelaria, lagunkoa izanik, albo-errietako etxe askotatik bertako jaietan bazkaltzera deitua izaten zan. Lurralde areitan antolatzten ziran azoka, abere azoka, idi-dema, arito-topeka ta pelota joko txapelketara joateko, Maxik beorra ibilpide berezia eban.

Bere beor ganean, beorra ondo apaindurik, bere txilin-txiki saratatsuakaz eta guztiz ondo orniduta, Maxi ze arro joian ba!... Jai-aldietarako, bere jolasketataro Maxik beorra lagun berezia eban, baiña Maxik bere beor gorriska polita, jarraio bezela be erabilten eban. Arkume, bildots eta ardiak azoka edo abere-iltokira ta gaztaiak dendatara eroateko be, beor-jarraioa baliotsua izaten jakon.

Maxi lagunkoi, sasoizko mutil adin-gazte bitar-

teko ta etxagun, lurralde edatsuen jabe izanik, lurralde aretako neska gazte eskongaiakaitik begikorrez, maitekorrez begiratua izatea, ez zan arritzekoa. Baiña Maxik eskontzatzez ez eban ezer jakin nai, oraingoz beintzat, berak donadu jarraitu gura eban.

Maxik bere basetxean bizitza nasai, larritasun, kezka larregi jasan bear izan barik, eroan. Basetxeko jaki-gela txarriki, arto-indaba ta igaliz beti ondo orniduta.

Larretxan upeltegia be txakolin gozo urte osorako eukiten eben, eta ez uste izan bere upeltegiko edari bikaiña berak, Maxik, uts-utsean edaten ebalá, ez. Lanerako, bearrerako, lagunak ain errez ez dira lortzen, baiña jan-edan, jai-aldi, joko ta txantxetarako deitu gabe agertzen dira. Larretxera be atxakirik txikiena zio izanik, Maxik txarria il ebalá, bere urtebetetze zala, ezbearrez artxo eder batek iztarra apurtu ta nai-ezean il ebalá ta... beste olako zio garrantzitsuekaitik bere lagunak, Maxin lagunak, bere jakigela ta upeltegia janariz eta edariz, txakolinez, gitxiagotzeko, arintzeko, aukera sekulakoa, izaten eben.

Maxi mutil zaara maltzurra bear, lan, larregi barik bere bizitza eroan. Nozean beinka edantegira joan eta bere lagun auzokideakaz alkar-izketa, musean jokatu, andiputz, farol bat edo beste bota ta kartillotxu bat ardao edateko astia be izaten eban.

Baiña azpikerizko ludi onetan, "baiña" anbat beti izaten da ta, Maxiñenean be, andrazko gabe izanik, gauzak guztiz ondo antolatuta ez ziran egoten, dana ankaz gora egoten zala esango neuke nik.

Larretxe basetxe inguruan, egoitz aurreko ortutxua bedar zaar eta sasiz josita, lorarik gabe, larrosatxu bat be basetxe inguruan ez zan agertzen, osteora asun eta belar, bedar, zital ugari, bai, etxe barnea, orma ta altzarietan autsa ta loikeria alde guztietatik, bere praka, Maxin praka, alkondara, soiñekotan iñoiz kututasunik izan ebela, ez zan nabaritzen.

Bere auzokidekandik Maxik eskontzatzaz tentaldi, zirikatzeak sarritan izaten ebazan, baiña berak bere oldozketatan, bere asmakisunetan, eskontzari uko egitea garaille izaten zala, erantzuten eutsen.

Nire lagunak, eta beraz gogo onez bai, esaten jaustek, Maxik bere baitan iñoan, Maxi andrazko, neska jaseko bat billatu eik. Baiña ni olan, andra barik azke, ederto bizi nok. Nire auzokideen onu, aolkuak, biotzez egiñekoak dozak, gogo onez, eta beraz eskertzen jautseedaz, baiña nire bizi-bidean, oraingoz beintzat, aldankuntzarik izatea ez jot nai.

Ostera, aitortu bear jot, nire etxea andra gazte bateaz garbi ta argi, egoki antolatuta egongo litzakela, nire soiñekoak be aletxo, botoi, baten utsik ez leukie izango. Ganera maitasunez, maitasunezko egikisunak beti bikaiñak izaten dira ta, nire soiñe-

koak ondo legunduta erabiliko neukazak. Benetan buru argiz ondo ausnartu bearreko arazoa jot au.

Asmakizun oneik edo antzekoak Maxin buruan sarritan izaten ziran, baiña berak bereala baztertzen ebazan, esanez, bere baitan esanez.

Burutasun oneik guztiz zuzen, ongariak dirala ez dot zalantzarik. Eskontzea beste alde batetik begiraturaz, arazo au beira ezbardindun bateaz begiraturaz, nik dodan azkatasuna, ezelako lokarri gabeko nire bizitza au baztertzea be..., zorokeri bat deritxot.

Nire auzokide Peru ta bere andra Iñaxia ikusten dodazan lez, beti matrakan ibiltea be..., baso, solo edo kortatik oski basaz beterikoakaz atorranean etxera eurak garbitu barik, kanpoan garbitu barik, sartu zarala etxera..., edo errekin autsa mai-oial ganean jausi jatsula ta, beti mar-mar, matrakan ibiltea be, niretzat ez da bizi-bide bat be egokia, guztokoa...

Bere auzokideak sarritan, batzutan t xatxetan, zirikatze naian eta beste batzutan gogo onez, Maxiri eskontzatzaz aolku bezela itz, berba, egiten eutsoen.

Baiña Maxi, andra jaseko gazte bat beragaz eskontzeko, zergaitik ez dok billatzen ba? Ara, atzo goizekoa ez az. Gaur egun, ondiño gazte ago ta eure burua ondo zaindu, jagoten dok, baiña biar edo etsi ire indarrak auldutzen jazakanean, indar eta adorea makaldu, neke, gaixo, makal-aldiak, eta beraz sarri-

ro izango dozakanean, nok arraio zaindu, jagongo au, ba? Ire txakurrek ardiak eta basetxea jagongo jabek, baiña ire burua zaintzeko ez dok lagunik izango...

Ara adiskideok, Maxik erantzuten eutsen, nitzaz eta nite etorkisunatzaz dozuen arduragaitik, egiz, biotz-biotzez eskertzen zaituet, baiña gaur-egun nire baitan, eskontzea dala ta premiñazko erroizorik ez dot aurkitzen. Geroago ez nazala ezkonduko ez diñot, ba da "sekula" ta "iñoiz ez" itz, berba oneik esatea ez jat guztatzen, etorkisuna, geroa, zelakoa izango dan iñork ez daki ta.

Arazo onen buruz, ezkontzatzaz nire oldozketatan bururatzen jatana esan bear dautsuet.

Ezkontzea, ezkon-bizitza andra-gizonentzat atzegintsu, onuragarria ba da, ondiño beragaz, bizi-bide orregaz, ezkondata gozatzeko, atsegintsu izateko, astia dot, osteraz ezkon-bizitza gaizto, kaltegarria ba da, zenbat eta geroago ezkondu oba izango jat. Olan da ze, ni neure artalde ta txakur biakaz ezkondata jarraituko dot. Oneikaz asarrerik ba dot, ostikada bat eurari emonda..., baiña norberaren andreari, naizta berak sortzen dauan eztabaidan berak errozoirik ez izan, men egin bear jako,... ala ez?, ostikada bat, txakur bat balitz lez emon?...

Ni gaur-egun benetan kezkatzen nauana, mendi beste magalean bizi dan Lukas otso zital, maltzurra da. Azpalditxuan nire lurraldetan bere aztarnarik ez dot nabaritzen, baiña...

Azkenengoz nire etxe aldamenetik igaro zanean, guztiz zaarkotxotuta ikusi neban, Faustino Makaletxeakoak esan eban.

Zaartauta egongo da, bai, urteak aurrera danontzat egiten dabe ta, baiña bere griña zital, bere okela-gose asetu eziñekoa ez eban aitzuko, ez. Ondiño amabost egun ez dira Patxo Errotatxikikori artxo eder-eder bat eroan, lapurtu eutsola, Inaxio Abadenokoak, iñoan.

Bai, Lukas otso, basa-pizti zital, maltzur, ardi-arrapatzail trebeenetarikoa izan da, iñoiz nire artaldian ardi bat baño geiago lapurtukoa da. Ainbat urte dira, San Antontxu egunean zuzen be, obeto esanda gaba baten nire artaldeko ardirik ederrena eroan eustan, ernari zan ardi lodi-lodi, aundi bat... artaldeko ardirik ederrena, eroan eustan, ernari zan ardi lodi-lodi esnetsua...

Arraio arraioa!... orduan bere buztanetik oratu ba neutsan, makillakadaka burua apurtuko neutsan..., Patxi Errotatxikikoak esan eban. Baiña Lukaseri be, Patxik jarraitu eban, bere sasoia eldu jako, eldu jako bere zoritxar-ordua. Orain azerikerietarako leengo trebetasunik ez dau, bere iztar zaarrak erdi-narras eroatea be guztiz zail, gaitz, egiten jako. Aldi baten sekulako zorrotz, iltzailleak izan ziran bere ortzak, orain kili-kolo, lokatuta, ezelako okelarik jateko gauza ez dirala.

Baiña beste mendi magalera, Lukasen egoitza

dan aitzpera joan gaitezan eta Lukasen bizitza zelan joian jakin dagigun.

Eguraldi, egutaro ederra zan. Udabarri-aurreko eguzkia sekula bezela argi, disdiratsu mendiska gailurretatik agerturik, inguru aretako lurraldeak, solo, landa, lantzar eta ortu lora margo ezbardin usaintsudunakaz apaindurik ziranak lilluragarritzko ikuspegia opatzen eben.

Lukasen egoitza zan aitzpe beko aldean, aran, ibarrean, leen aitatu dogun Patxo Errotatzikikoren artaldea, etxe aurreko landa orlegi zelai edatsu baten, ortzi-goiko eguzkiak opatzen eutseezan izpi epelakaz gozatuz, artxo ta ardiak euren sakelak betezbe saiatzen ziran.

Artxo jaio-barrien bekorkada eskalei, euren ardi-amak maitasunezko bekokor indartsuakaz erantzuten eutsen, eta areik, artxoak, saltuka, txeratsu bakoitza bere amaren errapera urreratzen ziran. Artxoak euren ardi-amaren errapeak arindu ondoren, barriro saltuka, gaztetasunak eragiten dauan giro alai, pozez beteaz euren artean jolastuz, bekaizkerizko ikuspegia agertzen eben.


Lukasek, gure otsoak, guzti au ikusi ta entzuten eban. Artxo ta ardien bekorkorkadak bere belarrietan eta baita be urdaillean sarturik, sekulako karraskadak, bere gosea bizkortuz, kezka larritasuna eragiten eutsoen.

Une aretan Lukas, artxo eder-eder bat lepoan ero-

ala, mendiska barrenean egoan iturritxuan, kereix sendo adartsudun kerizpetan gelditurik, bertan nasai jezarrita, ikusten zan.

Bere ortz, agin, zorrotz, eriotzagille zikiñak, ze lakekeriz artxotxuaren okela bigun, samur gozoetan sartzen ebazan ba!... Une batzuk arteroago bere urdail utsak karraskadaka nekarazitzen ba eban, orain bere urdailak jaki berezi gozo, samurrak bordalari barriak izanik, bere esker-ona agertzen eutsan.

Lukas bere amesetatan, zordian, sorgorturik, bere bordalari gabedun urdaillean sekulako atsegiña sentitzen eban. Jantetxe ospetsuenatarikoan sukaldari trebeenak sukaldutako janari gozo, lilluragarrienak gozatzen, jaten izan ba zan be, Lukas



Lukas otsoa artzain jantzita artaldea ikertzen.

otsoak atsegin zoragarriagorik sentiko ebala, ez dot uste. Lukas atsegin tokian aurkitzen zan...

Baiña amesetak amesetak izaten dira, luzaro ez dabe irauntzen. Lukas izartu, ernatu zan.

Errotatxikiko basetxe aurreko landa orlegi, ezean, artxo ta ardiek euren sakelak betetzen, bekorkorra-ka alai, pozez beterik, eder, guri-guri, ikusiaz, bere gosea, Lukasen gosea aundituz, bere etsimena, jasan eziñekoa zan.

Berton ilda geratu ez naiten, laster, bereala, unetxu bat be galdu barik zerbait, zeozer, egin bearko dot. Erabagi sendo bat artu bearko dot, iñoan Lukasek.

Baiña zer egin?... Ze norabide artu?... Lukasek bere buruaz ez ekian zer egin, ez ekian nora burua bota edo non urkatu... Azkenean bere gogoketatatik Patxon artaldea baztertu, aitzpe beko aldean egoan zugazti batera abiatu, bertan gaztain zaar, gaztain legortu zaar enbor zulo baten bere erpa luzeak eta bere muzturra sartu, ta bertako moxorro, koko, perretxiko ta sagu-abi bateko sagutxuakaz gozaldut eban. Beralako otsotzar batentzat gaztain enbor orretan arkitu eban otamena guztiz urria izan zan ezkerro, beste gaztain enbor batzuk be arakatu ebazan, baiña zoritxarrez ezertxu be geiago ez eban aoratzeko lortu.

Azperturik, mendi magaletik gora joanda, pagodi, pago lodi abarotsu baten kerizpetan jezarrita,

Lukasek bariro sekulako oldozketatan sorgoturik, bere gose izugarria makaltzen saiatzen zan. Bere asmakisunak, Lukas. Maxiñerantz eroaten eben, obeto esanda, Larretxeko artalderantz eroaten eben. Bere ardi ta artxo lodikote ederrak bereziki bere baitan izaten ziran.

Izan be, zelako ardi ta artxo ederrak daukaz Maxik ba! Egia da, ondo elikatzen dauz Maxik bere abereak, baiña bere artaldea, bere ardiak enda berezikoak dira. Nire urdail errukigarri onek, an bean saltuka dabilizan arkume samur, loditariko bateaz, a ze atsegintsu izango litzaken!... Ardiak be gazte ta mardulak dira, arkumearen orde zeuratariko bat ez litzaket txarto etorriko. Arito, arito ez da gaztea, bere okelak apur bat gogor egongo dira, bai, baiña nire gosea gogorragoa da... Nire arazoa orain, ez da txikia, artaldiraño iñok entzun ez ikusi barik zelan eldu da. Artalde kide bat arrapatzeko, ardi artean zelan sartuko naz?...

Maxik ardi-txakur bi dauz, Lukasek bere barnean iñoan, eta beraz artalde ta etxalde jagole, zaintzaille, trebeak eta zintzoak. Azeri, luki zein otso baten aztarna, usaiña, bitarte luzetik nabaritzen dabe, ta euren leenengo ausi, zaunkada bat entzutean, Maxi, ugazaba, eiza-izkillua sorbaldean dindilizka daroala agertzen ba da, bizkor, azkar, ez ba zabiliz danbada bi ez dauz bearko zu an kaz gora ilda izan zaitez.

Zerbait, zeozer, eta laster, bereala egin bearko

dot. Leenen leenen, Kiko ta Iru jagoten, zaintzen, dagozan artaldetik aldatzea da premiazkoa... Baiña zelan?... Or dago kakoa, ba!... Buru-auste, asmakisun onetan arduratzen zala, ara non Lukasek sekulako gomutamen, zoragarrizko eretxion asmakisun zelan izan eban.

Aaii jauna!... Nire burutxi onetan gertaera onegaz zelan leenago ez naz konturatu?... astokilloa ni... Oraintxe gogoratzen naz zelan Kiko ta Iru, Dunisin txakur-eme ta onen lengusñ Lisagaz maitemendurizko arremenak dabezela... Bai! Kiko ta Iru, Maxin ardi-txakurrei mezu bat, guzurrezko meezu bat bialduko dautset. Biar, Ostiral illuntzean beragaz, Pintagaz, betiko lekuan egon daitezela eskatuz, Dunisin txakur-emearen guzurrezko mezu bat bialduko dautset. Gizonezko gazte bategandik, neskatil polit, gazte batek lortzen ez dauana...

Au bai, nire asmakisun au bai, benetan buru argidun baten soilki, uts-utsean, bururatu leitekena... Mezu-erolea, mezu-eramalea bear dot. Bai, nire guzurrezko mezua eroateko, or goian, muruatzen bizi dan Bizer bela baltza aginduta egiñekoa baño be egokiago da. Egunero ikustaldi bat egitera etorten jat, eta gaur be emendik ikusiko dodala, uste dot.

Deabruak berak be lagunak izaten ei dauz eta, Lukasek, Lukas otsoak Bizer bela baltzaren laguntza

zintzoa eban. Lukas gazte ta arrapatzaillle trebea izan zanean, egaztiak, bela baltzak azeriagandik lortzen eban janariaren ordaiña, laguntza au, izango zan.

Baiña antzezleri onein topaketa ta alkar-izketa baño leenago, Kiko, Iru, Pinta ta Lisa arteko arremanak zelakoak ziran edastea, kontatzea, bearrezkoa da.

Lukasen egoitzatik, aitzazpetik bera jaitsita, aran orlegi, eze, loratsu bat zearkatzen eban errekatxu ur gardendun baten beste alboan, aldamenean, iturri ur ozkirri, zeargidun aurrean, solo ta barruti bedartsuakaz inguratuta Zugaietxe deritxon basetxea aurkitzen da, Dunisin basetxea. Dionisi, Dunisi erritarrentzat, andra alarguna bera, alargundu zantetik Zugaietxen bakar-bakarrik bizi zan. Bere ezkonaldian seme-alabarik ez eban izan. Bei bikote bat, berrogei bat ardi, amabiko bat oilo, oilosko ta oilarra, ta txakur-eme bat ebazan lagun.

Aitatu doguzan abere oneri, solo ta ortu batzuk egoki narotuei esker, Dunisiri bere bizitza ederto joakon.

Gure erri, lurraldetan, ez dakit oiturazkoa dan ala ez, baiña bearrezkoa bai, etxea zaindu, jagoteko, txakur bat, etxeko atari aurrean edo alboan lotuta, beste batzutan azke dala, eukitea. Dunisin etxean be, Pinta txakur-eme gorritzka mota zuriduna, Zugaietxe, bertako ardi, egazti ta inguruak zaindu,

jagoteko arduraduna zan. Eta egia esan txakurrak bere eginbearrak ondo, zintzo betetzen ebazan.

Kiko ta Iru, Maxi artzaiñaren txakurrak, beti basetxean, beti ardi artean, ardiak okerreko solo edo lantzarrera joaten ziranean, euren iztarretan, ardien iztarretan, aginkadaka beti ibilliaz, guztiz azpertura egozan. Azpertasun au, euren azpertasuna txakurrak ixillean eroen, batak besteari ezer esan gabe, baiña egun beten ixiltasun au etenik Iruk bere lagunari iñotsan.

I Kiko, emen beti ardi artean, euren atsean ibilliaz, azpertura ez ago?, Iruk itaundu eutsan.

Bai, ez nok egongo ba!, baiña zer egingo joguk, ba! Nora joango gozak gu ba? Emen baño obeto non egon, Iru? Emen eguneroko otamena, beraz ugaria, ziurtatuta jaukaguk, eta ori garrantzitsua dok, Kikok erantzun eutsan.

Egia dok, orretzaz igaz ados nagok, emen otamena ta ostatua be polita ta betirako jaukaguzak, baiña zer deritxok egun baten, obeto esanda gaba baten, ardi-usain edo ardi-ats au kendurik, apain-apain jantsita, jaseko txakur batzuk bezela jantzita, Pinta Dunisin txakur-emeagana apur bat jolasten joaten ba gozak?, Iruk Kikori iñotsan.

Arraio arraioa! Benetan az i txakur azkar buru argikoa...! Zelan leenago ez joguk bururatu ori?... Orixe, ber-ber ori egingo joguk. Orretarako egun berezia Ostirala dok, baiña egunez ez, gabaz izan

bear jok. Ba dakik, Maxi gure ugazaba Ostiraletan illuntzean oillokaz batera ogeratzen dok, eta gero, zurrun baten antzera lo egiten jok. Bai, datorren Ostiraletan, datorren Ostiral gabean joango gozak, Zugaitxera joango gozak, Kikok esan eutsan.

Eldu zan eguna, ain gogotsu itxaroten eben eguna eldu zan, esan eta egin, Kiko ta Iru, Maxi euren ugazaba ogeratu orduko, illuntzean, euren soiñeko ugerdunak dendu, garbiak jantsi, buru, aurpegi ta gorputz osoa usainduz, usain gozoz usaindurik, or doaz gure txakur biak Dunisinerantz.

Ez joazan ba alai, gure txakur biak, alai, pozik ez zoratuta!... Dunisin etxera urreratu ziranean, zaunkada txiki banagaz, biak batera, Pinta agurtu eben.

Zer dakarzue emendik? Pintak itaundu eutsen.

Ara ba, an gure etxean, gurean, beti ardi artean guztiz gogaituta gengoan eta bidalitxu bat egitea ondo jatorkula, ta zu be emen bakartasun onetan azpertura egon zaitekela gogoraturik, onaño urretatzea erabagi dogu, Kikok esan eban.

Bai, egia da, ni be emen beti bakar-bakarrik etxalde ta inguruak zaindu, jagoten azpertura naz, baiña luzaro alkar-izketan ezingo gara egon, nire andra-ugazaba, Dunisi, lo ariñekoa da, ta izartu leiteke. Orrez ganera zuek gizezko bi zarie ta ni andrazko bat, zer egiten dau andra batek gizon biaz?... Pintak iñotsen.

Ori be egia da, baiña oraintxe gogoratzen naz, zuk Izurdietxean lengusin bat ez dozu?, Iruk itaundu eutsan.

Bai, beraz txakur-eme azkar eta polita ganera, Kikor jarraitu eban.

Arduragabeko alkar-izketa onetan luzaro jardun eben, azkenean beste egun baterako, zuzen be urrengo Ostiral illuntzean laurak batzea erabagi eben. Berotasunik aundiagaz alkar agurtuz, banan-durik, Kiko ta Iru, Maxin etxerantz abiatu ziran.

Gure txakurrak Maxiñera eldu ziranean, euren ugazaba zurrkadaka entzun eben. Eurak, txakurrak, eroen usain-gozoa ardi-usaiñara aldatzeko naian, etxe osteko gortan, kortan, gorputz-biraka batzuk egin ebezan.

Urrengo egunak oitura eben lez emon ebezan, ardiak eta etxaldea zaindu, jagon, ugazabari txera, koipezkeriko urreratzeak egin, au da, eguneroko otamena aoratu, aboratu.

Amets-zoroz itxaroten eben Ostirala eldu zan. Egun orretan, Ostiral illuntzean, gure txakurrak Maxi ogeratu orduko, apainketak egiten saiatu ziran.

Usain-gozoz, garbi-garbi, jai eguneko soiñeko ta oski dizdiratsuak, jaseko jantsita, euren bidalian, Dunisiren etxerako bidalian ziran.

Aste osoan izan ebezan euren amesak, Kiko ta Irun, amesak, oso-osoa bete ziran. Zugaietxera

eldu ziranean, Pinta ta bere lengusin Lisa dotore jantsita, euren belarrietako urrezko barriak dindilizka ta narruzko lepo-ustai barriakaz sekulako polit, eragarkarri egozan. Maitasunezko alkar-agurtze bero-bero baten ondoren, goiz-alderarte alkar-izketan egon ziran. Sarritan gabaren orduak luzeak izaten ba dira, bikote bi onentzat gaba aren orduak, minutuak baño be laburragoak eretxi jakezan.

Arrezkero, arik aurrera, Kiko ta Iru, Pinta ta Lisagaz astero, Ostiraleroko egoten ziran.

Edeslariak, alkar-maitamendu ba ziran ez diño, baiña bai zelan laukote txakur onek euren eginbearrak apur bat bazterturik, ardura-gabeturik, begiratzen ebezela.

Kiko ta Iru alai, atsegintsu bizi ziran, aste osoan larri, urduri Ostirala noiz elduko emoten eben. Txakur onein gogoa Zugaietxean zan, eta beraz euren lan, bearra, au da Maxin etxalde ta artaldea zaindu, jagotea, bazterturik eben. Arterago euren lanean zintzo, deduzko izan ziran txakurrak, orain txantxetan, ardura-gabe astia jolasten emoten eben.

Leenengotan Maxik bere txakurrak izan eben aldakuntza, euren jokaeran izan eben aldakuntzan ez zan konturatu. Kiko ta Iru euren eginkisunetan, leenago euren lanean guztiz arduradunak izanik, orain ajola-gabe, euren baita, txakurren gogoa, artalde ta basetxetik urrun zala, nabaritzen asi zan.

Leenago ardiakaz eta batez be artxo jaiο- barriakaz izaten ebezan laztan, kutuntasunak, orain ez ebazan ikusten. Ostera euren artean, txakurren artean izaten ebezan alkar-izketa ta barre algarak, eurentzat, txakurrentzat garrantzitsua zan zerbait jazoten zala, adierazoten eutsoen.

Asmakisun oneik alde batetik, eta naizta txakurren alkar-izketak erdi-entzunak izan, Maxik bere ardi-txakurren arazoa zein zan sumatzen eban, azkenean txakurren jokaeraren zioa zein zan osoz jakin eban. Txakurrak, bere ardi-txakurrak, Pinta ta Lisagaz maitamendurik edo beintzat maitamentzeko bidean zirala, ba ekian. Maxin leenengo biotzeragiña, txakurrak bere etxetik bota, egotzi, bere begien aurretik kentzea izan zan, baiña apur bat oldoztu ondoren, erabagi au bere gogotik aldatu eban.

Ez, eurentzat, txakurrentzat, kaltegarri izango jaken zigorrik ez dautset ezarriko. Olako unetan, onelako erabagietan biotza otz eta burua argi izan bear da, bere barnean Maxik iñoan.

Lenengo ta bein, txabola eder bi, txakurtoki eder eder bi, txakur bakoitzantzat bana eraikiko dot.

Maxik asmau eban lez egin eban. txakurtoki edatsu bi txakurrentzat eraiki ebazan, kanpotik apain margozturik, baiña biak, txakurtoki biak margo ezbarditñakaz margoztuta. Etxe aurrean esku-mara zelaiunean tontortxu baten ezarrita, bertatik



Lukas basatxakurra sagutxuakaz eztabaidatzen.

inguru areik babesteko, txakurrak ikuspegi berezia eban.

Leenagoko txakurtokian Kiko ta Iru biak batera arkasuso artean egiten eban lo, txakurtoki eremu urrikoa txakur bintzat. Txakurtoki barriak leenagokoa baño aundiagoak ziran, eta txakur bakoitzak bere tokia eukan. Lo egiteko ta egunaroko lan gogorren ondorioz, txakurrak guztiz nekatuta etxeratzen ziranean atsedentzeko, txakurtokian bakoitzak bere illaski eder, bigun-bigun bana eukien. Otz, izotz eta bero, sargori jasan eziñekoetatik babestzeko, otz eta bero larregietatik babesteko, txakurtokiak bizkarrean zurezko teilletu edo etxegain bi eukiezan, bitarte laburtxu bat euren artean izanik. Benetan bikain, zoragarriak gure txakur Kiko ta Irurentzat, Maxik eraiki ebazan txakurtokiak.

Bizitza arloan, euren bizitzan be Kiko ta Iruk

aldakuntz nabari ongariak izan ebezan. Euren eguneroko otamena leen baño oparotsuagoa ta mota, kalidade, obeagoa. Eurentzat txakurrentzat ain atsegintsu, guztokoa zan esne-sopa astean egun bitan edo irutan eukiten eben, euran langintza, au da artalde, etxalde ta inguruak zaindu, jagotea ain neketsua izan ez daiten, Maxik esparru ta barruti batzuk eratu ebazan. Egun ekaitzdun izotz-beltz, lei baltza zanean etxeko sute, sukaldean, ugazabaren alboan, sutondo mukurtsu inguruan, luzaro egoteko baimena izaten eben, eta zelako txera, keñiu ta kopipekeriak Maxik egiten eutsoezan ba! Bizi-bide obarik non aurkitu?

Kiko ta Iruk be euren baitan itaun ber-bera au eben, emen Maxiaz baño obeto, bizi-bide obeagorik non aurkitu? Azkenengo egunetan Maxik eurakanako eban jokaera atsegingarriaz arrituta ziran. Kiko ta Iruk euren ugazabak izan eban aldakuntza ez eben ulertzen, eta ara emen, esparru baten ardiak zaintzen egozala, barruti alboko munan jazarrita izan eben alkar-izketa.

I Kiko, Maxik azkenengo egunetan gugaz dauan jokaera onegaz, zer deritxok? Iruk bera lagunari itaundu eutsan. Ni egia esan arrituta nagok.

Zer esango jot, adiskide, ba? Amesetan nazala uste jot. Naizta gau ta egun bakan edo mirari onen buruz oldozten saiatu, errazoizko erantzunik ez jot aurkitzen. Egia dok, Maxi azkenengo iru edo lau

illebete oneitan, erriko abadeaz alkar-izketan ikusten jot. Maxi eliztar gizon bat eginda jagok, eta ba dakik eleizeak, Kristotar eleizeak lagun-urkoa norberan buru aiñan maite bear dala agintzen jok. Arteroago eragin dauskuzan neke, erdi-gose ta lan neurritik-kanpokoak, baleiteke orain damuturik, ordaindu nai izatea. Ez jakit, baiña edozelan be aldakuntz au ongi-etorria izan daitela, Kikok erantzun eutsan.

Konturatu az ondo guretzat eraiki joazan egoitz bikain ederrak? Dunisiñen ez joguk olako atsegingtokirik! Mutil gure egoeratzaz, gure etorkisun, geroatzaz astiro-astiro ta luzaro oldoztu bear joguk. Gure amesak, gure maitamendurizko amesak alde batetik, eta Maxi beste aldetik, aukera bi oneik jaukaguzak, Kikok esan eutsan.

Gure urten-bide, bizi-bide biak onetxek dozak. Bata Pinta ta Lisagaz ezkondurik, apur bat gorabera zelako bizitza, bizi-bidea izango dogun ba jakiguk. Etxe, egoitz apal eta oparotasunik gabea, sendia ugaritzen dan aiñan, lan nekeak be ugarituak izango dozak, Iruk iñoan.

Bai, baiña maitasuna, sendi maitasuna; Illuntzean, lan gogor eta neketsua jasan ondoren etxera eldutean andra ta seme-alabatxuen irribarre, laztan, kutuntasunak eragiten daben poz-alaitasuna, zintzo jokatun daben sari ezititsua... Kikok iñotsan.

Bai, bai, egia dok, musu besarkada, irribarre, laz-

tan, kutuntasunak ederto jatozak... eta leenengotan euren balio osoan eskertuko dozak, baiña egunero, gauero, afari urria janda ogeratzen ba az... eta leio leerdura bitartetatik kanpoko leitze, izotz-beltza makaltzeko mukur, sua egiteko ta berotasunik ez ba daukak... maitasun, txera, laztan, kututansunak... zetarako?

Mutil, nik Lisa maite nebala uste neban, uste ez, ziur nintzan, iñoan Iruk, baiña ez jot uste bere maitasun-gabe ezingo nazala bizi. Ostera urdail utsik, urdailla bordalari gabe, lana ta otza auzokide jasan eziñakoak dozak... Auzokide oneikaz nire bizitza zelakoa izango dok?

Ondo ausnartu bearreko arazoa benetan. Luzaro alkar-izketan, gai onen buruz Kiko ta Iruk alkar-izketan luzaro jardun eben. Sendi-bizitza, Lisa ta Pintagaz ezkondurik, geroago ta atsegin-gabeagoa eritxiten jaken. Sendi beartsu, ondasun urridun baten arazoak argi agertzen jakezan. Lan neketsu, gogor, amaibakoa egunero ta beti. Ondoren, lana amaitu ondoren, etxean seme-alabatxuak ogia eske negarrez oiuka, bere andrea, andra donea, urritasun guztiei aurgedia emon eta zuzen-erazten ebana, laztan, musu, kutuntasun, maitasunaren irudi ber-bera ez zan. Iruk margotzen eban etxe-bizitzan tarteko, kide izateko, gizaki bategan maitasuna ganezka izan bear dau.

Gai garrantzitsua benetan. Bear ba da zuk, ira-

kurle gai au argi ikusiko dozu, zure baitan, zure buruan arazo au argi agertuko da. Ludi diru-zale onetan, maitasuna maitakeri biurtzen dan ludi onetan, arazo au argi agertzen da, baiña euren naia, euren elburua lortzen dabe? Atsegintsuak, osoz atsegintsuak izaten dira?...

Baiña itzuli gaitazan Kiko ta Irugana. Gau oldozketa, amesetatarako sasoi berezia dala ta, euren alkar-izketa eten eben, euren asmakisunak baztertu ebezan Baztertu bai, baiña zuzendu ez.

Adar-biko arazo au, maitasuna ala diru-zaletasun arazo au, zuzen-gabe, erabagirik artu barik geratu zan. Baiña Maxik bururatu eban zigorra, Kiko ta Iru zigortzeko asmau eban zigorra, osoz lortu ebala, arlo onetan argi agertzen da.

Kiko ta Iru, be txakur zaintzailleak maitamendurik zirala ta, etxea ta artaldea babes gabe itxita, utxita, urrunki joaten zirala Maxik jakinda izan eban leenengo biotz-eragiña bete ba eban, au da, txakurrak bere etxetik kanpora bota, ardi-txakur barik bere artalde ta etxaldea zaindu, jagoteko geratuko zan, eta beraz zigorra berantzat, Maxintzet, izango zan. Ostera orain, zelako txakurren buru-auste izugarria, Kiko ta Iruntzat zigor berezi-berezia benetan!

Lukasegana, Lukasen egoitzara itzuli baño leenago, Kiko ta Iruk izan eben jokaeratzaz jarraitu dagi-gun. Edeeslariak ezkondu ba ziran ala ez, ez diño,

baña bai luzaro oldozten, arazo onen buruz oldozten egon zirala, ta baita be, Ostiral gabak orain astero ez zirala izaten, ostiralero arteroago izaten zan bezela, Orain Kiko ta Iru, Pinta ta Lisagana ez zirala joaten, euren alkar-maitasuna otzitu, epeltzen joiala. Maxi artzaiñak bere txakurrak, Kiko ta Iru, zenbat eta obeto elikatu, euren urdaillak jaki oparo ta gozo samurragoakaz betetu, euren, txakurren, Lisa ta Pintaganako maitasuna, epeltzen joiala, edeslariak ba diño.

Gure txakur biak zalantzan ziran, maitasuna alde batetik eta bizi-bide nasai, jaki oparo ta egoitz bikaiña bestetik... zein bide artu?, au zan ba gure lagun bien arazoa.

Euren asmakisunetan, maitasunak mendiak be mugitzen dauz ta, azkenean Kikok berebiziko burutasun bat, buru argidun bateri dagokion burutasun bat izanik, Iruri esan eutsan.

Iru, bart lorik be ezin izan neban egin. Gau osoan ogean gure arazotzaz oldozten bira ta bira egon naz, eta azkenean urten-bide sekulakoa asmau dodala, uste dot.

Maxik, gure ugazabak, gugan jokaera ezin obea dau. Bere etxean ondo baño obeto bizi gara, bertatik urtetea ezergaitik be ez dogu nai, gura, orretzaz zalantzarik izango dozula, ez dot uste.

Bai, ori argi dago, Iruk erantzun eutsan. Martin gizon deduzko, biotz onduna da, beragaz eta bere

etxean ni atsegintsu naz, eta egia esan beragaz jarraitu nai neuke. Baiña Dunisiñenen be, nik eta uste dot zuk be bai, zer galdu dogu. Zein bizi-bidea izango jaku onuragarriena?

Bizi-bide orretara noa ba. Nire burutasun onen ondorioz, artu bear dogun erabagiaz, txori bi danbada bateaz ilgo doguz, Kikok iñotsan.

Azaldu zaitez, adiskide, nik danbadarik egiteko izkillurik ez daukat eta ..., Iruk urduri itaundu eutsan.

Ara, Maxi gure ugazaba gu bezela ezkongea da. Apur bat zaartxua ba da, mutil-zaarra, baiña ondiño gizon jaseko, itxura onduna. Guri bezela berari be bere bizitzarako andra sasoizko, jaseko bat ondo etorriko leikio. Dunisi neska adiñekoa, ondiño sasoi onean, onenean esango neuke nik...

Arraio arraio!, Iruk oiuka, Kikok eban bakarizketa geldiarazi eban. Demontrez! zelan gertaera orregaz ez nok konturatu ni? I Kiko txakur buru argikoa, guztiz argikoa az gero... Ire buruan olako asmakisun sakon, onuragarriak izan eitekezala, ez neban uste. Ba jakit bai, ire urten bidea zein doken. Ik ezkontza bi ez dozak nai, ik iru ezkontza ikusi gura dozak.

Bai alan zan, Kikok, Maxi Dunisiaz ezkondu eiten nai eban. Onelan etxaguntza bi, lurralde edatsuak, barruti, lantzar eta solo-ortu bikaiñak, etxagun baten, sendi baten menpean geratzen ziran.

Ezkontza onen ondorioz Kiko ta Iru, Pinta ta Lisagaz ezkontuta, Maxi ta Dunisiren etxalde, artalde, ondasun guztien zaindari, jagole, geratuko ziran.

Kiko ta Iruk euren arazoa zelan zuzendu eben jakin baño leenago, Lukas otsoa ta bere adiskide Bizer bela baltzaaz zer jazo zan ikusi dagigun.

Lukas bere asmakisun, gogoketatan, erdi-zoraturik ebillela, ara non Bizer bere adiskidea agertzen jakon. Alkar agurtu ondoren eta euren bizitzaren gora-berakaz arduratuta, Lukasek esan eutsan.

Ara Bizer, gaur niretzat guztiz garrantzitsua dan mezede bat egin bear daustazu. Eskertuko zaitut, nire gogoan beti izango zaitut.

Bizer, bela-eme zaarra, neurriz-kanpoko maltzurra ba zan, asperkari asetu eziña be bai. Lurralde aretako biztanleak ondo ezagutzen eben. Aomen, ospe guztiz txarduna, bere egikisun zitalak eundaka kontatzen ziran. Bizerrek bere bizitza iñoiz golperik emon barik eroan, eta ez txarto. Iñoren leptotik, bere eguneroko janaria lortzeko, iñoren izerdiaz baliatzen zan. Ez dago zalantzarik orretarako azkarra ta buru argikoa izan bear da. Bizer olakoa zan, buru argikoa ta biotz otzduna, ori biotzik ba eukan.

Bizerrek inguruko basetxe, etxagun eta bazter guztiak ondo ezagutzen ebazan. Maxiñenean, Maxin basetxean, iñoiz arrutz batzuk lapurtu bakoa ez zan, ez! Baiña gau baten, Maxin basetxean, oilotokian lapurketa bat egiteko asmuz joian gau baten,

bertako txakur zaindari, jagoleakandik, Kiko ta Irugandik, aginkadak jasan bear izan ebazan.

Ba dakigu Bizer asperkari, mendakari amorrotua zala. Berari egindako, berari eritxion irain, laido naizta txikiena izan, bere buru, gogotik ez zan aldatzen. Beraz orain bere pozarako, Kiko ta Iru mendekatzeko aukera pare-gabea agertzen jakon. Lukasek eskatzen eutsan mezede, otsoari mezede bat egitea, berantzat mezede egitea, ez zan. Abagune onetan irabaslle, garaile, nagusia bera zan. Kiko ta Iru mendekatu ori zan ba, bere gurari, naia!

Zu Bizer, zuk Dunisin txakur-emea ezagutzen dozu, ez? Maxin txakurrak, Kiko ta Iru be ezagutzen dozuz, iñoiz eurakaz alkar-izketa edo eztabaidan ikusi zaitut eta, Lukasek Bizerreri iñotsan.

Ara, Maximon etxera joan zaitezala nai dot. Bertako ardi-txakurrakaz, Kiko ta Irugaz egon zaitetz, eta Dunisin txakur-eme, Lindak agindutako mezu bat eurantzat dakarsula, esaiezue. Biar Ostiral arrasti, arrtsaldean, illuntzean, eguzkia estaldu orduko, eurakaz beko alboko abaro barrenean egon nai dauala esaiezu, Lindak eurakaz berba egitea nai dauala, Bizer beleari Lukasek esan eutsan.

Ederto, bereala Maxiñen etxera joango naz eta zure agindua oso-osoa beteko dot, orretzaz ez ardurarik izan, Bizer beleak, Lukasek agintzen eutsona txakurrentzat, Kiko ta Iruntzat, kaltegarria zala uste izanik, pozez beterik erantzun eutsan.

Unetxu bat be galdu barik, Bizer bela baltza egazkada baten, Maxik bere artaldea elikatzen eukan barruti alboko intxaurrean izan zan. Intxaurraren adar zindo baten kokaturik, karrakada batzuk eginda, Kiko ta Iru beraganatu ebazan, eta esan eutsen.

Eee zuek, Kiko ta Iru!, Dunisineko Pinta txakur-emeak zuekaz alkar-izketan izateko nai, guraria dauala, esan daust, eta biar illuntzean betiko tokian, lekuan egon zaitezela eskatzen dautsue.

Zer nai, gura dau gugandik Pintak, ba?, Kikok itaundu eutsan.

Zuekaz egoteko nai, gurariaren ziorik ez daust agertu, baiña arto-jorran solora, batez be sasoi orretan, joateko ez da izango, diñot nik. Zuentzat albiste ondun, ongarria izango dan mezu au ekarteagaitik bidalirako zozertxu emoten ba daustazue... eskertuko zaituet, Bizer bela baltzak, esan eutsen.

Emen berton, oraintxe ogi zatitutxu au baño ez daukagu. Artu eizu, eutsi ta tximista bera baño be ariñago emendik estaldu zaitez, ba da gure ugazabak, Maxik zure azeri usañik nabaritzen ba dau, zure azkena izango da. Leengo egunean lapurtu zeutzazan arrautzak dirala ta, bera dago mutilla ba!, Iruk ogia emenez esan eutsan.

Zu Bizer, Kikok jarraitu eban, biar illuntzean, biar Ostirala da ta, gu biok, Iru ta biok, betiko lekuan, bere etxe alboan egongo garala, esaiozu,

baiña Lisa be bertan egotea nai dogula, ta mezedez egon daitela, agur.

Bizer Lukas otsoagana aurkezturik, bere asmakisunak, Lukasen asmakisunak, zuzen-zuzen gertatzen joiazala adierazo eutsan, eta urrengo egunean, biramone-illuntzean Kiko ta Iru Dunisin etxe alboan, bertako Pinta ta Lisa bere lengusiñagaz jolastan egongo zirala. Beraz aukera ezin ohea Lukasen gurari, naia, oso-osoan betetzeko.

Zer deritxozu, Kiko, geuk be Endikan txakur zaarkotetxuz beste mezu bat, Maxiri mezu bat, Dunisiaz egoteko, Dunisik beragaz, Maxiaz egon nai dauala esanez, beste mezu bat bialtzen ba daustagu?, txakurrak bakarrik geratu ziranean, iruk esan eban.

Burutapen au txakur bien guztokoa izanik, illuntze beratan Etxezuri basetxe albotik Kiko ta Iru igarotean, Endikan txakur-eme zaartxua bai, baiña barritsua be bai, isekariaz, luzarotxu irurak alkar-izketan egon ziran. Antza zanetik euren alkar-izketa iruran guztokoa zan, beintzat txakurren barre-santzoak ola adierazoten eben.

Endikan txakur zaarra, naizta bere laguna izan, lagun-urkoa isekatzeko beti gertu egoan. Iseka-zale amorrotua izanik, une aretan eukera sekulakoa bere zaletasuna asetzeko, bere begien aurrean agertzen jakon.

Naizta iru txakur onein alkar-izketan barre-zan-

tzoak izan, euren adiskidetasunaren irudi zintzoa ez zan, itxura utsa bai. Kiko ta Iru, Endikan txakur-
rrentzat ez ziran bat be begigoak.

Etzezuri basetxea lurrez edatsua ez zan, Endika, etxagunak, bere andra, bere andra ta seme-alaba biak elikatzeko beste arto-indaba ta gari, garagar, bere ondo narotuko soloetan lortzen eban. Iru edo lau bei, zekorto bi buztarrirako, larogei bat ardi esnekoak eta amabost bat ardi-antzu, beste ogeitamar bat egazti ta asto bat zaldi-burdi bateaz jarraio lanetarako, lorrerako, guzti oneik Endikan sendia osotzen eban. Aaa!, eta baita be, aiztuta geratu jat, txakur zaarkotea, Etxezuri etxalde ta Endikan sendiaren ondasun guztiak zaindu, jagoteko.

Maximo jauna eizta-zale trebe, amorrotua da, ta bere zaletasunari jarraituz gure etxe albotik sarritan igaroten da. Oker ez ba naz, erbi ta untxiak eiztaratzeko baimen-agiria leengo Eguenean urten dau, ta uste dot, Maxi ta bere adiskide Peru emendik egun gitxi barru, zelako egun, ordu gitxi barru etorriko dirala, Endikan txakurrak bere baitan iñoan.

Peru, Maxin adiskiderik zintzoena da, bera beze-la aiztari amorrotua, burni-arotz, errementaritzta, da bere bizi-bidea. Bere txakurra, bere erbi-txakurra, Belarri, erbi anbatan aztarnak eraginda auzika, zaunka, entzuten ba eban, bere lantegian mailluka otsa bereala ixilten zan. Sorbaldean eiza-izkillua dindilizka, txistukada bat Maxiri dei egiñik, dei-

turik, or doaz gure eiztari biak gogotsu erbiaren atsean.

Une orretan eurentzat, eiztarientzat, ez dago ez ardi ez artalderik eta ez abererik be apatzak apaintzeko. Euren zentzu, gogo osoa erbi ta txakurregan dago. Naizta arratsaldeko illuntzea izan ta, Peru ta Maxi bazkaldu barik egon, goiz-goizeko gosari laburragaz izan, erbia arrapau arte edo bere aztarna galdurik eta txakurrak guztiz nekatuta erbiaren usañik, aztarnik, egun orretan barrero nabaritzea eziñekoa eretxi, ez ziran etxeratuko.

Endikan txakurrak asmakisun oneik ebazala, ara non, Maxi oitura eban lez eiza-izkillua lepoan eta bere erbi-txakurra lagun ebalta, Etxezuri albotik zelan igaroten dan. Atarira urreratu zanean aupada bat eginda, Etxezuriko biztanleak agurtu ebazan.

Egunon neskato! eguraldi ederra, ez? Zer Endika ta Erramona solotik dira ala?

Ez ba, Endika idi buzterriaz basora mukur billa, gurdikada, burdikada, bat gurbitx-mukur billa joan da. Erramona, or etxe barnean izan bear dau, txakurrak erantzun eutsan. Eta bereala jarraitu eban, berorrek apur bat atsedendu nai ba dau, jazarleku onetan jazarri daiteke, edontzi bat bete esne ozkirri-ozkirria beingoan ekarriko dautsat, aulki bat opatuz txakurrak iñotsan.

Ez, esnerik ez, baiña jazarri bai egingo naz, jazarriko naz, eta atsedentzen nazan bitartean, nire

lagun Endika gurdikada egurraz agertuko da, uste dot, Maxik esan eutsan.

Alkar-izketa au adiskidetasun osoz zan ezkeru, beintzat itxuraz, Endikan txakurra pozik agertzen zan.

Sekula bezela jatost arira, neuk nai neban gaiara, bere baitan iñoan.

Berorren txakurrak, Kiko ta Iru, zelan dabiltz? Azpaldian gure etxe albotik Dunisinerantz igaroten sarritan ikusten dodaz. Zuzen be azkenengoz joan dan Ostiral illuntzean izan zan. Naizta eurak ni ez-ikusi egin, nik ezagutu nebazan. Izan be Lisa ta Pinta txakur-eme gazte politak dira ta ...!, Endikan txakurrak iñotsan.

Baiña zer diñaustazu? Kiko ta Iru, nire txakur etxe-jagoleak, Dunisin txakur-emearen atsean dabiltzala?... Ziur zara eurak zirala?... Maximok esan eutsan.

Gutziz ziur naz jauna, ondiño geiago, azken iru-lau ille oneitan, astero Ostiral guztietan, eguna illundu orduko, jaseko dotore apaindurik agertu dira... pozez beterik Endikan txakurrak, iñotsan.

Arraio arraioa! Neure baimen barik... arlotekerian ganera... artalde ta etxalde osoa jagole gabe... nik eurakanako dodan begirune berezia olan ordaintzen dauste?... esker gaiztokoak... ikusiko dabe ba... merezitako zigorra izango dabe, bai orixe... neure baimen barik!... su asarre irudituz,

Maximok iñoan. Maltzurkeriz beterik izan zan alkar-izketa onen aitzindari biak euren naia lorturik poz alai agertzen ziran. Maxik bere txakurren jokersa, Ostiraletako bidalien ziurtasun geiago gura eban, eta Endikan txakurrak zearo, zeatz, azaldu eutsan, gertaera batzuk txakurren kalterako aunditurik, jazorikoa aundiagoturik.

Arraio arraioa! Berba ta berba, konturatu gabe denpore, astia, aurrera joan jat, Maxik esan eban, eta Endika gurdikada mukurraz ez da agertzen.

Ernari egozan ardi batzuen artxo barriak itxaroten ebazala ta, atxakia izanik, Maxik alkar-izketa eten eban eta bereala Endikan txakurra agurtuz, bere etxerantz abiatu zan.

Maxi ta Zurbi, au zan Endikan txakurraren izena, euren alkar-izketa amaitu eben, alde bietatik maltzurkeriz izandako alkar-izketa eten eben, eta berotasunik aundienagaz agurturik, banandu ziran.

Rufik, Endikan txakurrak, Kike eta Iruk euren ugazabantzat emoneko mezua, ez eutsan jakin-azo. Zurbi txakur maltzur, isekaria ez eze guztiz irudikorra be ba zan, eta Kike eta Iruk esaneko mezua, ez eban guztiz egizkotzat artu. Oldoztu, beratzaz, mezutzaz, bein eta barriro ausnartuz, bere baitan iñoan. Dunisin mezu ori Maxiri adierazoteko, Kiko eta Iru ni bitarteko aukeratzea, izendatzeko zio berezirik nire burutxu onetan ez dot aurkitzen. Eurak, biak, Kiko eta Iru ni baño gazteagoak dira ta

beraz iztarrak nik baño ariñago, azkarragak dabez... Ez, ez, Maxi jaunagaz izan dodan berbaldia neure guztokoa izan da. Nik neure gurari, naia, bete dot. Ez da nire arazoa, ta beraz zergatiko ori eurak zuzendu dagiela. Eta Endikan txakurra nasai, poz-alai geratu zan.

Arik egun batzutara, Maxi bere artalde ta txakur biak lagun ebazala, bere etxe alboan, aldamenean egoan esparrura, bertan ardiak barruratzeko asmuz, joian. Barruti onetan ardiak jagoteko ezelako zaindaririk ez zan bear. Au dala ta be, zaindaritzatik, artalde jagotetik Maxik baztertu ebazalako, txakurrak guztiz urduri, kezcatsu ziran. Txakurrentzat zio ugariakaitik Maximoaz berba, itz egitea bearrzekoa zan. Batez be Dunisi, Pinta ta Lisatzaz berba egiteko gurari bizi-bizia eben, baiña ondorioaren bildur ziran.

Ardiak barrutian sartu ondoren, basetxerantz abiatuko zirala uste ziranean, Maxi esparru alboan, muna baten, pipakada bat erretzeko asmuz jazarri-rik, aldean eroan narru-zorrotik pipea atera, betetu errekiñez eta erretan eban bitartean txakurrei deitu eutsen eta iñotsen.

Jezarri zaiteze, mutillak, nasai, emen ardiak jagolerik ez dabe eta.

Txakurrak bata Maxin eskumara ta beste ezkerre-
ra, bere alboan, jazarri ziran.

Joan dan astean, Asteartea zala uste dot, erbitan

Dunizin etxe albotik igaro nintzanean, inguru are-
tako auzokide batek, Ostiral gabetan txakur-usaiña,
aztarna, nabaritzen dauala, esan eustan. Zuzen be,
txakur usain au, nire txakurrena, suena, dalakoan
dagola iñostan. Gertaera onen buruz, zer diñosta-
zue, zuek?

A ze atsedean, au entzutean a ze atsedean txakurrak
izan ebena! Sakontasun osoz arnastu ziran, euren
birikiak aize ozkirri itxaropentsuaz beteturik, nasai-
tu ziran.

Gai onetzaz, txakurrak Pinta ta Lisagaz ebezan
arremanatzaz, eta baita be, Maxi ta Dunisin eskon-
tatzaz, euren ugazabagaz berba egiteko gurari bizi-
bizia eben, baiña ez ziran ausartzen, eta ara zelan,
uste gabe, aukera sekulakoa agertzen jaken.

Ara jauna, txakur biak larri, urduri, biak batera
asi ziran berbetan, izketan. Txakurrek leenengo lee-
nengotik Maxiri egi osoa autortzeko erabagi eben,
eta iñotsen.

Bai jauna, egia da, orain ille bi bat dala leenen-
goz ostiral illuntze baten Dunisinera joan giñan.
Emendik, gure txakurtoki ingurutik azpaldian
urten barik, guztiz azpirtuta giñan, eta ezelako
asmu gabe, ta baita be zuzen-biderik asmatu gabe,
ibiltaldi bat egitera, beste zio barik urtenda,
Dunisineraño eldu giñan. Gero bertako txakur-
emez jolasten, txantxetan, gabarik geiena emon
genduan.

Arezkero, arrik aurrera astero, ostiral illundetan, Dunisin txakur-eme Pinta ta bere lengusin Lizagaz jolasten joaten gara.

Txakur lirain, polit orreik ezagutu doguzanetik, Kikok iñotsan, beste txakur, izaki batzuk gara, alai, maitekorrakoak. Zuzen be gure aldakuntz au, ziurki, andrazko gazte orreik eragiña dala, ziur gara.

Ara jauna, iñoren bizitzan sartzea ez jat guztatzen, orregaitik parkatu bedi jauna, baiña berorrek be, Dunisi andra ondiño gazte, deduzko, garbi ta langilleaz eskonduko balitz, berorren bizitzan aldakuntz berezia izango leukela, uste dogu, Iruk jarraitu eban. Aldakuntz au onuragarria izanik, berorren bizitza alai, atsegintsu biurtuko litzake. Andra ta sendiaganako maitasunak, nekerik astun, mingorrenak be arintzen dauz. Arazo, zio, onetzaz oldoztu bedi berorrek...

Milla esker lagunok, Maxik Iruri bere bakar-izketa geldi-azo eutsan. Eskerrak zuen aolkuekaitik, baiña oraindik nire asmu, burutasunak, bide orretatik ez doaz. Eskontzea erabagiten ba dot, jakin-azoko dautsuet. Nire gaurko bizi-bide au aldaturik, iñoiz eskon-bidea artzen ba dot, jakingo dozue, bitartean, Maxik jarraitu eban, nire artalde ta etxealdearen jagoleak izan nai ba dozue, ostiral gabak be nire etxean astegunak dira, lan, bear, egiteko egunak dira.

Urten bide bi dozue, bata, nire betiko baldintzak onartuz, nire artalde ta etxealdearen zaindari,

jagoleak, izatea, ta bestea, Liza ta Pintagaz zuen bizitza eroan nai ba dozue, eurakaz alkartu ta Dunsinera bizitzen joan. Nik beste txakur ardi jagoleak aurkituko dodaz, ez nigaitik larritu, nigaitik ez ardurarik izan, egizue zuen naia.

Orain, alkar-izketa au amaitu da ta, goazen base-txerantz. Zuen erabagia berrogeta zortzi ordu barruan itxaroten dot.

Maxik, Kiko ta Iru bere txakurregan ez eban sortu ba arazo makala! Erabagi bat zein bestea artu, eurentzat ez zan izango guztiz atsegingarria. Maxin babespean euren bizitza guztiz pozgarria iruditen jaken. Ondo elikatuta, txakurtoki bikaiña lo egiteko ta ganera lan, bear, geiegi barik, zer geiago batek eskatu lei?... Baiña Pinta ta Liza maite ebezan, eurakaz, eurakaz alkaturik bizi gura eben. Benetan Iru ta Kikontzat arazo izugarria; artu bear eben erabagia erabatekoa zan.

Txakurrak kezkatu, urduri, atsekabetuta, egun biak emon ebezan. Maxiri erantzuna emoteko epea amaitu jaken, eta ondiño euren buruetan erabagirik ez eben. Azkenean aste bete bateko epe barri bat, euren arazoa zuzentzako, erabagitzeko, txakurrak Maxiri eskatu eutsoen.

Maxik txakurren eskaria ontzat artu eban. Zuzen be Maximo pozik zan, bere nai, guraria, lortu eban. Auxe zan bai berak itxaroten eban zigorra. Txakurrak urduri, kezkatu jarritzea.

Txakurrak arduratsu, euren arazotzaz oldozten, atsekabetuta erabiltea, ori zan ba Maxik nai ebana. Oldozte, gogoketa orreïn ondorioz, ziur zan, txakurrak Kiko ta Iruk, sakela bete-bete ta nasai arduragabe bere etxean jarraitzea, erabagiko ebela.

Txakurrentzat erabagi garrantzitsu, sekulekoa da, iñoan Maxik, eurak nai daben astia oldozteko artu dagiela.

Maximo artzaiñak berak be arazo onetzaz, eskontzatzaz, ausnartzen eban. Maitasunezko erabagiak, maitamenduen erabagiak, biotz sutsuz, bereala, epe laburrean artzen dira, Baiña epe gabe, arazo orreik, maitasunari, maitamendutzari dagokiozan arazotzaz epe gabe ausnartzen saiatzen ba zara, biotzarenugar otsa, bere auzokide, biotzaren auzokide dan urdaillaren deadarrak menperatzen dabe. Ausnartzen dauana burua da, ta au biotza baño otzagoa izanik, urdail utsaren deadar, deia, premiñagoa izaten jako.

Gure txakurrak, Kiko ta Iru, euren arazoa zuzentzen saiatzen ziran bitartean, Lukas otsoaren inguruetan, bere egoitza zan aitzpean zer jazoten zan jakin dagigun.

Lukas otsoa, azkanengoz ikusi genduanetik guztiz zaarkotxuta dago, guztiz zaar aurkiten da, ta bere zaartzaroaren ondorioz, bear bearrezkoa dauan eguneroko otamena lortzeko be, eragozpen gaiñeratu eziñekoak dauz. Egia esan, otso guztien aitita

dirudi, bere agoan, ortz, agin, bi edo iru ta eurak lokatuta dira bertako bodalariak. Bere gaztaroan eiztari trebe, arrapatzaille ta eriotzaille trebe, biotzbakoa izan ba zan, orain, azpalditxuan beintzat, eiztarako adore aundirik ez eban agertzen. Ez eban ba buru-auste makala eguneroko janaria billatu ta lortzea.

Lukasek, Kiko ta Iru, Maxin txakurrak, Dunisin txakur-eme ta Lizagaz ebezan arremanak, maitamendurizko arremanak, alkar-maitamendurik zirala, ba ekian, jakitun zan.

Lukasek uste eban, eta bere asmakisunetan ez egoan guztiz oker, Kiko ta Iru, Pinta ta Lizagaz maitamenduta izanik, txakur oneik Maxin etxealdea ta artaldea zaindu, jagoteaz baño euren maitaleak arduratuta geiago zirala, ta leenago edo gerrogo Maximonetik, euren txakurtokietatik alde eginda, sekulako eukera artxo eder bat arrapatzeko izango ebala. Asti, denporea, zan arazoa. Une berezi au eldu arte, nasai itxarotea zan, baiña Lukasek iru egun luze ezertxu be aoratu barik eroazan, iru egun beste ainbeste gau lagun ebazala baraurik, joandako iru egunetan Lukasek bere urdaillean ez eban izan auzokiderik, eta guztiz premiñazko eban, zerbait jateko lortzea.

Ez dot beste urten-biderik, gosez ementxe ilda geratu ez naiten, bereala nonbaiterantz abiatu bear naz.

Bere egoitzatik, aitzpetik urtenda, landa eze, bedartsu bat inguratzen eban gurbixtegi baten, beraz polito izkutututa, bedar moltso baten izkutututa, sagu-abi bat sei sagukumagaz aurkitu eban. Sagutxuak jaiobarriak ziran, ondiño erdi billosik egozan, Lukasentzat zizkamizka sekulakoa.

Oneikaz tripakadarik ezingo dot egin, baiña nire urdaillaren karraskadak beratu al izango dodaz, Lukasek iñoan.

Sagu-abi atarian aupakada bat egiñik, otso maltzurak agurtu ebazan, esanez.

Zer mutillak, eguaro ederra ez? zuen aita-amak nondik dira ba?

Ara jauna, guretzat eguaro ez da bat be atsegin-garria, emen gara otz eta gosez erdi-illik. Gure aita-amak, Erramon Bekoetxeko jaki-gelan guretzat gaztai apur bat lortu al ba dabe, otamen apur bat billa joan dira.

Orduan emendik laster etorriko dira, ez? Lukasek, sagu aita-amak eldutean, otamen aundia-goia izango ebalasmatu rik, esan eutsen.

Ez dogu uste, gaba illundu arte ez dirala etorriko esan dauskue. Gulako izaki babes-gabeak egun argitan ibiltea, guztiz arriskutsua da ta, sagutxutari-ko urtenenak, esan eban.

Zuentzat gaurko gaba epe luzeegia da, sasoi orre-tan otamenik ez dozue bearko, nire sakelean izango zarie ta.

Jauna, olakorik ez bedi egin... gu guztiz argal, gizen-gabe aurkitzen gara..., gugaz gozaltzeko be ez dau berorrek..., erruki bedi gugaz...! sei sagu-kumetatik nagusi, urtenene zanak esan eutsan. Beste alde batetik berorrentzat gure laguntza, gu bizirik izatea onuragarriago izango litzakio.

Ez zaitut ulertzen, zer esan nai, gura, daustazu?, zure asmakisuna argi ta garbi azaldu aistazu, Lukasek erantzun eutsan.

Sagutxu maltzurra buru guztiz argikoa zan, eta bereala sekulako azpi-joko polita, asmau eban.

Orain dira egun bi, areñegun, Erramon Bekoetxekori bere artaldean ezbear baten ondorioz, arkume lodi, eder-eder bat il jakon. Artxo illa non aurkitzen dan, guk ondo dakigu. Gure biziaren ordeztoki ori, artxo ori, non dagon esango dautsuegu, sagutxu ber-berak, Lukaseri iñotsan.

Zuen asmakisuna oso-osoan ez dot onartzen, baiña alkar-izketa labur bat egiñik, guztiok ados egotea baleiteke, Lukasek iñotsen. Ementxe berton jezarriko naz, eta danon artean, arazo au zuzenduko dogu.

Sei sagutxuak, sei kidetatik nagusien biak danen ordezkari bezela izendatu ebezan. Sagu-abi aurrean irukote au jezarririk, batzarra asi zan. Lukas alde baten eta sagutxu biak otsoaren aurrez aurrez ziralas.

Ara, nik neure lepoan urte asko dodaz, larregi esango neuke, jazokisun ugari ikusikoa naz, eta orren ondorioz gaur-egun etxinkorra naz. Guztiz

entzinkorra. Leenen leenen artxo illa non dagon esan bear daustazue, Lukasek esan eutsen.

Artxoa asao dago, urrun dago, sagutxutariko batek esan eban, baiña zu bertara arifieketa baten eldu zeinteke. Artxo illa or beko troka baten dago, bertara artzaiñak zelan jaurti eban, ikusi genduan.

Ori olan izango dala, uste dot, baiña leenago esan dautsuedan lez ni guztiz entzinkorra naz. Nik zuek diñostazuena ontzat artzen dot. Artxoa or beko troka baten dagon ezkerro, troka orretara joateko zuetariko bin laguntza bear dot, orretzaz eragozpenik izango dozuela, ez dot uste. Troka sakonean artxoa ikustean, nire laguntzaille biak zuen egoitzara itzuli al izango dabe, eta sei neba-arrebok baketan geratuko zarie, nigaz baketan geratuko zarie, ezer txarrik ez dautsuet egingo, Lukasek iñotsen.

Jauna, artxo illa aurkitzen dan trokara joateko, ez dau berorrek galtzerik, bide-zior oneri jarraituz, areitz sendo ta adartsuak babestutako iturritxu ur gardenduna, aurkituko dau. Antxe berton, eskumara berorren begien aurrean troka sakon bat agertuko da, sagutariko batek esan eban.

Lukas sagutxuakaz ez zan entzinduten. Lukas entzigaitz ta maltzurra ez-eze buru argikoa be ba zan, eta saguei esan eutsen.

Ara lagunak, nik txantxetan ibilteko astirik ez dot. Anai-arrebatariko bi nigaz trokara joateko, ni trokara gidaritzeko, izendatu eizue, artxotxu orren

illobira nigaz joateko izendatu eizue, bestela zuen azkena eldua da, Lukasek garrats esan eutsen.

Sagutxuak be izaki azkar eta maltzurak dira. Ludi, mundu, menperatzaille eriotzaille onetan bizitzeko, bizi al izateko, izaki ain txiki, babesgabeak bizirik iraun al izateko, benetan azkar eta maltzurak izan bear dabe.

Troka orretan artxo bizi ez illik ez egoan lez, arazo gogorra, errez zuzendu eziñekoa sagutxuri aurkezten jakena.

Lukasegaz joango ziran sagutxu biak, sagu-abitxura ez ziran itzuliko... zer egin?... Arazo au euren artean, sagutxun artean, eztabaidatzea, euretariko bi Lukasegaz joateko izendatzeko euren artean batzartu bat egitea zillegitea, otsoari eskatu eutsoen.

Lukasen baimenagaz, sei sagutxuak okuillu baten bazterturik euren egoera larritzaz oldozten, saiatu ziran.

Ara, sagutxu nagusi edo urtenenak, bere anai-arrebai esan eutsen. Bere nai, guraria, au da beragaz, Lukasegaz, troka orretara joatea ukatzen ba dautsagu, gutariko bi beragaz joatea ukatzen ba dautsagu, seirok ilgo gaitu. beragaz gutariko bi joateko da gure urten-bide bakarra, beraz orretarako, tamala da baiña, bi izendatu bear doguz.

Azkenean sagutxuak euren batzarrean, utsezko troka orretara Lukasegaz txikien biak joatea, erabagi eban.

Sagutxu biak gertu ziran Lukas otsoaz bidalian abiatzeko. Sagu txikitxuak bideratu baño leenago, beste lau anai-arrebakandik ondo aolkatuak izan ziran. Ara iñotsen, zuek zeuen bidalian, utsezko troka ori ainbat urrunean, asao, ezarriko dozue, bidalia, atxaki ugari asmatuz, alik geien luzatuko dozue. Bitartean guk emen, emen geratzen garanok, zerbait baño geiago zuen onerako, ta beraz gure onerako be bai, asmauko dogu... joan zaitezze ba guztiz nasai.

Lukas eta sagutxu biak, irukote bakana, an joiaz astiro-astiro, leenengoa, Lukas, ariñago ezin egin ebalako eta beste biak, euren bidaliaren elmugara eltzea nai ez ebelako.

Lukasek artxo illa non egoan bein eta barrero sagutxuei itaunduten eutsen, eta sagutxuen erantzuna beti zeatz-gabekoa izaten zan. Or aurrean daukagun mendiska ori igarota, bere beste magaletik jaitsita ikusten dan amiltokian, troka baten, antxe bertan gaur gaberako aumeki gozo, biguna dauka berorrek, sagutxuak esaten eutsoen, baiña ondiño naiko urrun, asao dago, toki ori ondiño asao dago.

Bitartean beste lau sagutxuak euren sagu-abitxuan lo ez egozan. Euretariko bat, nagusiena, azkerra ta buru argikoa bera, sagu-abitik, euren egoitzatik urtenda, bere anai-arrebai, iñotsen.

Orra, alboko mendiska orren tontorrera igongo

dot, eta bertatik txistu luze saratatsu bat eginda, ziur naz, Erramonen txakurrak entzungo dabela. Nire txistu deadarra, entzungo dabela, ta bereala gure laguntzan etorriko dira.

Sagutxuak asmau eban bezela jazo zan. Iñoiz baño be sekulako txistu-ortz luze, saratatsu batek, inguruetako mendiska ta muru-aitztzetan oiartzunduz, lurralde aretako basetxeko txakurrak entzunda, ausika, zaunka, euren txakur tokietatik urtenda ariñeketan lantzar eta soloetarantz abiatu ziran.

Aran eta mendietan sortu zan ausi, zaunka soñuaz, Lukas urduruturik, larri, zein nora-bide artu jakin eziñik, bere laguntzaille sagutxu ta baita artxoaz be aitzu zan. Otsoak naaspillatsu, iges egitea, anka egitea, urten-bide, bere arazoaren urten-bide bakarra eritxion. Ostera sagutxuak guztiz alai, pozez beterik, unetxu bat be galdu barik, tximista bera baño be ariñago, ariñeketa baten, euren egoitzan izan ziran. Euren sagu-abitxura eldu ziran.

Sagutxu biak euren anai-arrebakandik izan eben arrera, azaldu eziñekoa da. Sagu-abi aurrean sei sagutxuak saltuka, zantzo ta abesti naastaurik, ango barre algarak, oi ta saratak, pozez negarrez, alkarbesarkatu ziran.

Geroago sagutxuak, apur bat nasaitu, baretu ziran, jazoriko guztia ajola gabe, ardura gabe, gogoratzen eben.

Ja! Ja! Ja!... A ze atsipen, ze amets-eten, Lukasek

izan dauana... Ja! Ja! Ja!... Gaur gabeen bere urdai-lla bete nai ba dau, afaltu gura ba dau, Bekoetxen daukaz ardi mardul ederrak... Ja! Ja! Ja!, baiña azkar ibilli bearako dau... aran osoko txakurrak bere atsean dira ta guztiz abiadura sendoan ez ba dabil gaur gaba baño leenago gorpu izango da... Ja! Ja! Ja!

Bitartean Lukas errukigarria ariñeketan, erdi narraz, emen jausi an jagi, igeska, azkenean pago enbor lodi ta adartsu batzuen ostean estaldu, izkutatatu al izan zan. Atsedendu apur bat artu ondoren, apur bat atsedendu ondoren eta apur bat nasaituta, bere egoera larri, estutzaz oldozten saiatu zan.

Ementxe, zugaitz adartsu ta sasiz inguratuta diran pago oneitan abaro polita dot, eta ementxe, berton illundu arte beintzat, geratuko naz, Lukasek iñoan.

Lukasek, asmau eban lez egin eban, pagodi abarotsu aretan geratu zan. Eguzkia estalduta illuntzen asi zanean, ordurako txakur ausi, zaunkadak be ixildu, Lukas ain kezkatu, urduri ezartzen eben txakur ausi, zaunkadak ixildurik, bere aitzperantz abiatu zan. Leen baño apur bat nasaingo, baiña gosez eta otsez erdi-illik, gure otsoa emen jausi an jagi, astiro bai, baiña azkenean bere egoitzara eldu zan.

Bere aitz-zuloan, Lukas, lo apur bat egin eta atsedentzeko asmuz etzun zan, baiña ezin izan zan lokartu. Izan be, gose, urdaillu utsik eta otza, auzo-

kide atsegingarri, lagungoiak ez dira. Bere baitan, sekulako amesetak ebazan. Goseak eragiten dauazan gogoketak jakiñak dira, beti janari, ardi, arkumekiaz amesetan.

Jakia lortzeko, Lukasek iñoan bere baitan, antziñako jardun-bidea gaur-egun niretzat, ez da egokia. Basetxeetako txakur, oilotoki ta artaldi jagoleak, ni baño askoz azkarragoak dira. Ez, ez, gaur-egun nire iztarrak lapurketatarako ez dira gauza, ez dabe balio. Iñoiz ardi-lapur, egazti arrapatzaillerik iñoz izan ba dok, ni izan nok ba..., baiña areik beste aldi, denpora batzuek zozan... Burua erabilteko garaia eldu jat, bai... Asmakizun berezi bat bear jot, eta guztiz arin, bizkor izan bear jot... bestela gosez eta otzez bertan gogorturik, ilgo nok...

Lukasek burua, ondiño bere burua argi eban, ganera amest-zalea zan. Goseak berak be sarritan burua argitzen dau, bizkortzen dau. Azkenean, Lukas oldozkor bere barnean millaka amets-xede naasturik, otsoari bere barnean itxaropen izpi sortu jakon.

Bai, Lukasek, burutasun zoragarri bat izan eban.

Sekulako bizi-bidea asmau jot, bai, mantxunga obarik aurkitu ezifñekoa dok, buru argiduna izatea garrantzitsua dok gero... Gaurtik aurrera arkume gizen, bigunak, bigunak, jan ala eukiko joazak, bai. Gaurtik aurrera nire jaki-gela, arkumekiz beterik izango dok. Aurrerantzean erri onetako ta albo-

errietako otsoakaitik be bekaiztua izango nok... Burutasun bakan au, gaztea izan nintzanean izan bear neban... Izan be, oiturazko bizi-bide, lapurketatan saiaturik, olako gogoketatarako astirik be ez neban izaten eta... Emendik, aurrerantzean, artaldietan artzain bezela jantsita, artzain jantsita, agertuko nok... Lukasen bakar-izketa au zan.

Baiña zelan artzain jantsi?... Artzain jantsiak non edo zelan aurkitu?... Zelan edo alan aurkituko joazak, soiñekoak aurkituko joazak... Orain bai, Millaka txakurkeri egin daustazue, baiña orain ordain berezia izango dozue...

Lukasari pozaren-pozez bere abotik adurra erion. Makillakadaka ta txakur zaunka arten "on-artua" izaten zan artzaiñagana bidalixu bat egitea, erabagi zintzoa artu eban.

Lukas kezkatzen eban arazoa, artzain soiñekoak lortzea zan, eta ara non, urrengo goizean bere aitzpetik urtenda, urdailla ixiltzeko zerbait jaki billa ebillela, Etxezuri basetxe alboan legortzeko asmuz eskegita artzain soiñeko batzuk ikusten dauazan. Ikusi ta lapurtu be bai, artzain soiñekoa artu ebazan eta bereala bere egoitzarantz abiatu zan.

Bere gurari, nai, zitala lortzeko naian, Lukas burupidea antolatzen arduraturik, onelan bere barnean iñoan.

Artzain soiñeko oneik, neuretzat agindu ta egiñekoak baño be obeto daukadaz. Orain neure buru-

pidea antolatu bear dot. Nire naia oso-osoan eztopo barik betetzeko, Igandea egunik egokiena da. Igande goizetan Goikoetxe basetxeko etxeguna amarratako Meza nagusira joaten da. Ordu orretatik eguerdiko ordu batak arte, eleiz aurreko edantegian erronka bat edo beste bota ta an izaten dira erritar baserritar geienak, Goikoetxeko artzaiña euren artean kide izanik.

Goikoetxetik naiko urruti, asao, barruti, lantzar edatsu baten, txakurra ardien jagole dala, bazkaloste arte egoten dan lez, zuzen be aukera berezia dot, sekulakoa, txakur eta artzaiñari, Goikoetxeko etxegunari, egin daustezan txakurkeri, eginkadak, iraiñak ordaintzeko.

A zan poza Lukasena! Bere amesetan Lukas artzain jantsita, makilla bat bere eskuan, ardi ta artxo lodi, gizen artean abere lodien eta gurienak auke-ratzen, ordu batzuk geroago izango eban tripakadea gogoratuz, poz alai, atsegifnez beterik ikusten zan.

Eldu zan eguna. Ain urduri, kezkatu itxaroten eban eguna eldu zan. Igande goiz, ozkarbi, dizdiratsua, txoriak euren txio-txio alai saratatsuekaz inguruetako zugazti, landa ta soloak, bazter guztiak alaitzen ebezan. Erriko eleizako dorreko kanpaiak, mezarako bigarren dei, deadarra, egin eben. Eleizpean txantxetan, alkar-izketa arduragabedunetan ziran eleiztarrak, euren artean Goikotxeko etxaguna kide zala, mezea entzuteko asmuz, eleizan sartu ziran.

Lukas, artzain soñekoakaz jantsita, makilla bat eskuan, sorbaldean, lepoan narru-zorroa eskegita, barrandegi berezia zan bizkartxu batera igonda, bertatik Goikoetxe ta artaldea egoan barrutia, begiztatu eban. Eleizako kanpaiak ixildu ziran, basetxeetako ke-zuloetatik jasoten ziran ke-edoiak, bertako, basetxeetako, etxe-andrak janaria gertatzen, sukaltzen saiatzen zirala adierazoten eben.

Lukasen bare-aldi, sorgor-aldi a, txorien abesti alai saratatsuek eta mendi barrenetik saltukari ibairantz joiazan errekatxuko urak eragiten eben zurrumurruak soilki, etentzen eben.

Lapurketarako aukera berezi, sekulakoa Lukasentzat. Berak be olan uste izan eban, eta be-reala artaldea aurkitzen zan barrutirantz, bere iztar zaarrak abiatu ebazan.

Naizta Lukas ondo itxurgatuta egon, arreta aundiz, zugaitz enbor eta solo-lantzarretako munakaz balioturik, ixil-ixilik, alde guztietara bein eta barriro begiratu, oinkadaka oinkadaka barrutira, urreratu zan.

Zoragarrizko ikuspegia Lukasen begiak begiztazen ebana!... Bere begien aurrean ze arkume eder, bigun, gizenak!... Jaki gozo, bigun, samur areik iruntziz, bere urdaillak izan eban atsegia gozatu... bere abotik adurra dariola zan.

Artaldean artzain bat bezela sarturik, ardi artean emen ardi bat lepoan ikutu, arago artxo eder bat

bere eskuetan, ze astuntasun eban jakiteko, artu, beste ardi bateri keñu bat egin, asaogoakori irribarrretxu begikoi bat egin, pozez beterik, atsegintsu, gure Lukas jauna, ebillen.

Bere garaipena ospatu naian, Lukas arro-putz barrutian zear artaldeaz bidali, ibilaldi bat egitea, ibilaldi laburtxu bat egitea, nai izanik, artaldea aurretik ebala, pozez beterik eta alai, artzai bezela esparruan saiatu zan. Onelan ardi ta artxo eder, lodi, gizenenak aukeratu ta ezagutzeko aukera izango dot, iñoan Lukasek.

Lukas poz, alaien zan une beratan, zoritxarra!, ara non, barrutiko muna txikitxu bat igarotean, jaitsitean, ardi-korotz bigun baten laprast eginda, bere ago zikiña oso-osoan non zabaltzen dauan, eta bere agin, ortz zikiñagoak agertuz eta birao ondiño loia-go bat iñoala, ara zelan bera nor zan agertzen dauan. Orrez ganera soñean eroazan artzain-soñekoak urraturik, zuzen be prakak bere buztana ez jako agertzen ba!

Artalde osotzen eben ardi ta artxoak, euren artean artzain bat irudituz ebillena Lukas otsoa zala konturatu ziranean, an izan ziran izatekoak... artxotxuak euren amaen errapetan sarturik, abaro babesleku billa..., ardiak bekokorreka saratatsu ariñeketan euren artxotxuakaz topo egitera..., dana zan sarata ta oiua, urduritasun eta eskiertasun naia.

Baiña danan jokaera ez zan guztiz bardiña. Aritoa

bere adar biurrikaz, bein eta barrero Lukas otsoa erazotuz, bere gorputza estaltzen ebezan artzain-soiñekoak apurturik, guttiz satituta, beste aldi baten artalde ta oillotokietan izugarritzko bildurra sortzen ebana, orain itxura negargarrian agerturik, ardi ta arkumetxuek isekatzen eben.

Goikoetxeko etxaguna be barrutira elduta, asarre oiuka iñoan.

Arraioa arraioa!... Maltzur lotsagaldur ori...! iñoiz lotsarik izan ba dok!... Jaseko artzaiña az I, buztana be praka-artetik agirian ba dok...! ire egazti, ardi ta arkume lapurketak izan dozak...! emendik bizirik ez dok urtengo...!

Lukas itxura negargarrian zala, danak iltzat emon eben, esparru bazter batera narrastuz, geroago lurperatzeko naian bertan itxi, utxi, eben.

Baiña ez, Lukas ondiño ez zan gorpu, ondiño bizi izpi bat ba eban, zoritxarrez, berantzat zoritxarrez, oso gitxi.

Lukas esparrutik aldendu naian, erdi-illik, erdinarras aran alboko mendiska batera igoten saiatu zan, baiña eziña izan jakon. Bere bizitza-orduak zenbatuak zirala Lukasek ziur ikusirik, leenengo aurkitu eban iturrian bere gorputzeko zauriak garbitzen saiatu zan bitartean, gose, otz eta atsekabeak eraginda, bere ao zikiñetik azkenengo arnasartzea urten eban. Bertan ilda geratu zan.

Ara emen izaki zital, eriotzagille bateri dagokion

eriotz lazgarria. Senide, aide gabe, bere bizitza okerreko bidetik, zitalkeri-bidetik, daroan izaki batek bidezkoa da adiskiderik be ez izatea, Lukas bakartasunik negargarri, izugarriean, bere azken orduak emon ebazan.

Gure beste aitzindariakaz zer jazo zan? Ara edeslariak zer diñon.

Gazte ta maitasuna alkaturik eta amaibako ekinaldien laguntzaz sortzen dan indarra geldiarazi, eutsi, eziñekoa izaten da ta, Kiko ta Iruk limurkeriz edo limurketa-bidez, Maxi Dunisiaz eskontzea lortu eben. Eurak, Kiko ta Iru, Pinta ta Lizagaz eskondurik, euren nai, guraria, oso-oso bete zan.

Gizaki, gizasemeen, bizitzan eretxiak, asmakisu-nak, urteakaz guttiz aldatzen dira ta, Maxik be bere eretxi, artegaroz eskontzatza izan ebazan eretxi, asmakisu-nak bazterturik, Dunisiaz eskondu zan.


Iñoiz, iñongo gizaki batek eskontzea bear-bearezkoa ba eban, aldi aretan Maxi zan. Sendi gabe, senide, aide barik, ludi onetan bakar-bakarririk eta urteak leporatuz, benetan egoera bekaitzkeriz begiratu eztekoa. Dunisiaz eskondurik, berak esaten eban lez, bere bizitzan astia izan eban eskotzeaz gozatzeko. Sendi zoriontsua Maxi ta Duniziñe, euren zaartzaro luzean poz-alai bizi izan ziran.

Kiko ta Iru be Pinta ta Lizagaz alkaturik bikote bien artean zortxi txakurkuma izan ebezan. Etxagun baten menpean etxalde biak alkaturik,

Kiko ta Iru lurralde guztien eta artalde aberetsuen jagole zintzoak, urte luzarotan izan ziran.

Peru ta Inazi be, euren eguneroko matrakak bazterturik, bizi-bide baketsu, zoriontsuaz gozatzen eben.

Ipuin azken polita, baita be esan-nai edo ipuin-ondoa. Okerreko bidetik, gaiztakeri ta zitalkeri bidetik doan bizitzak, bere aierkeri aiñako zigorra, leenago edo berandu, beluago, izango dau.



Orsoa, Lukas basatxakurra, Bizer bela balzagaz alkar-izketan.